

ttipi ttapa

2004ko ekainaren 17a • XXIV. urtea



**Siberiatik gurera
datozen haurrak**

03

Villava Solidaria elkartearen ekimenarekin bat eginez, Siberiako hiru haur hartuko dituzte udan Erratzu, Elizondo eta Urdazubiko hiru familiatan.



**Fernando Arburua
23 urte ondotik libre**

20

23 urtez preso izan ondotik ekainaren 7an askatu zuten Fernando Arburua zugarramurdiarra. Baztan eta Zugarramurdin ongietorriak eskaini zaizkio.

04 Baztango granja Ehizturiendako faisai, galeper eta untxi basak hazten



ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA



MENDI
ALMOCENES **TXURI**



- *Etxegintza eta burdindegi materialak*
- *Zeramikak (Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)*
- *Teila frantsesak (Guiraud, TBF)*
- *Egurrezko sukaldeak*
- *Tximiniak*

© 948 450305 / 948 450068 • DONEZTEBE

DATUAK...

• Villava Solidaria elkartearen bidez Errusiako Siberia aldeko bi umezurtz-etxeko haurrak etortzen dira Nafarroara azken sei urteotan. 5 eta 17 urte arteko 35 bat haur biltzen ditu Iruña, Atarrabia, Altsasu eta Uhartel Arakil inguruan. Baztanera joan den urtean hedatu zen.

• Joan den urteko udan, Argitxu Muruaren familiak Siberiako Anastasia Neverova 8 urteko neska ekarri zuen. Eguberrietan etorri zen berriz ere eta ekainaren 23an etorriko da bi hilabeterako.



Argitxu MURUA Villava Solidaria elkarteko kide erratzuarra

UTZITAKO ARGAZKIA

«Hizkuntza da arazorik ttikiena, segidan eskuaraz hasten baitira»

Aitor AROTZENA

Nola gogoratu zitzaizun Siberiako haur bat etxera ekartzea?

Duela bizpahiru urte ikusi nuen telebistan eta interesa piztu zitzaidan. Orduan ez nuen egin hiru haur ditugulako eta udan oporretan gaten ginelako. Orain bi mutiko zaharrenak ez daude gurekin eta badugu aukera hori. Atarrabiako Villava Solidaria elkartearen telefonoa lortu nuen eta horrela sartu nintzen harremanetan. **Zein izaten dira haur hauen premiarik haundienak?**

Umezurtzak dira eta helburua da afektiboki giro bat sortzea. Haur bat hartzeko galdegiten den baldintza bakarra familia orekatu bat izatea da haurrari behar duen maitasuna emateko, haur horiek maiz alkoholismoa eta tratu txarrak ezagutu baitituzte. Inguru honetan Saharatik etortzen diren haurrak gehiago ezagutzen ditugu, baina ezberdina da. Saharakoak berotik aldegitiko etortzen dira eta Siberiakoentzat, berriz, hau arras beroa da. Han zero azpitik 40 gradutan izaten dira. Guk beti haur bera hartzen dugu eta hori ere ezberdina da.

«Baldintza bakarra familia orekatua izatea da haurrari behar duen maitasuna emateko, haur horiek maiz alkoholismoa eta tratu txarrak ezagutu baitituzte»

Geroztik Baztan eta Urdazubiko bertze bi familia ere sartu dira programa honetan...

Eguberrietan Anastasiarekin batera bertze haur batek ere, Annia Vasilevak hartu zuen gure eskualdeko bidea, Elizondoko familia batera etorri. Eta uda honetan hirugarren bat etorriko da Urdazubira, Bredir Vasileva, Anniaren anai ttikia.

Ongi moldatzen da hemengo bizimoldera eta jendera?

Biziki ongi moldatu zen segidan, eskuara ikasten hasi zen eta urte bukaerako ongi moldatzen zen. Hastapenean gu ere hizkuntzaren beldur ginen, nola elkar ulertuko genuen, baina azkenean hizkuntza ez da arazo. Bera errusieraz mintzatzen zen, sekulako gauzak kontatzen zizkigun, ez genuen deus ulertzen, baina pis-

kanaka eskuaraz hasi zen eta Eguberrietan etorri delarik sekulako aintzinamendua egin du eskuaraz.

Haur horiek ekartzeko, ordea, ez duzue dirulaguntzarik izaten, alderantziz baizik...

Villava Solidaria elkarteko kideok hiru euro ordaintzen dugu eta hortik aparte lan egiten dugu maiztzean merkatuak antolatuz, Atarrabiako bestetan lan eginez... Dendentan puskak eske ibiltzen gara eta gero saldu egiten dugu. Horrekin, haurren bidaia ordaintzen da eta hemen dituzten gastuak ere gure gain hartzen ditugu, ez da dirulaguntzarik. Aseguru aldetik ere, gurean sartzen dira. Negozioa nahi duenarentzat ez da leku ona, ez. Lanean inplikatu behar duzu eta elkartasuna eman.

Familiaren batek Errusiako haur bat ekarri nahi balu, zer egin beharko luke?

Interesatuak daudenak elkartearekin harremanetan sar daitezke telefono zenbaki hauen bidez: 948 278291 edo 609 448410 (Rafael Aranguren, elkarteko lehendakaria). Hor emanen dituzte beharrezko xehetasun guztiak.



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Eustakio Bazterrika granjako arduraduna, sortu berri diren faisaiak zaintzen.

BAZTANGO EHIZI ELKARTEAK ERABILTZEN DU

Faisaiak, galeperrak eta untxi basak hazten dira Amaiurko granjan

Duela hamar urte, 1994an sortu zen Amaiurko faisai granja. Lau hektarea hartzen ditu eta inguruko bakarra da. Orduan, inguruko zenbait ehiztari elkarte bildu ziren: Baztan, Lesaka, Sunbilla, Mendaur (Zubieta, Elgorriaga eta Ituren), Nafarroako Federazioa ere sartu zen, Iruñeko koadrila bat ere bai... Baina granja zaintzeaz arduratzen den Eustakio Bazterrika ittundarrak erran digunez, «pixkan pixkan uzten joan ziren, honek ez baitu dirurik uzten». Orain, Baztango elkarteak bakarrik gelditzen da eta juntako kide batzuk joaten dira asteburuetan granjara, Bazterrikari laguntzera.

Joseba OLAGARAI

Hasiera hartan Tafallako granja batetik ekartzen ziren faisaiak, arrak eta emeak. Nafarroako federazioko teknikariek erakutsi zieten nola egin behar zen, baina Eustakio Bazterrikak dioenez, denborak eta lanak hobe-

kiago erakusten du produkzioa nola egin: «Orain ikusten dugu garai hartan egin ziren gauza batzuk ez zirela modu hartan egin behar, lanak erakusten du bertze aldera behar zela, baina...». Partikular bat edo bertzeri saltzen badute ere, gehien bat Baz-

tango mendietan lixatzeko izaten da granjako produkzioa, beraz negozioa egiteko aukera eskasa da: «Ez, hau ehizirako bakar-bakarrik da eta ehiziarekin ez dago negoziaririk. Mendi-
ra botatzen duzun guzua ez duzu bildu behar, badira sapelaitzak, badira azeriak, horiek ere bizi behar dute. Mila bota eta bortzehun edo hirurehun bilduko dituzu, ez gehiago. Saldu ere zerbait egiten dugu, Frantziara, Erriberara, dena ehizirako eta horrekin hemengo gastuak nolobait estaltzen dituzu. Honek dirurik ez du uzten». Berrehun bat faisai izaten dituzte eta bisitatu genuen tenorean, maiatza erdialdera, erruten ari ziren. «Hemen dauden denak arraultzeak erruteko daude orain, arraultzea egin eta gero inkubadoran sartu eta umeak ateratzen dira. Tenore honetan ez duzu

Eustakio BAZTERRIKA *Arduraduna*



Hegazti zaila omen da faisaiak...

Arront bitxo alua da, gaixtoa, jaio orduko ez badituzu leku ilunean edukitzen el-

karrerri pikoka hasten dira. Hilabetea bete baino lehen ezin diozu pikoka moztu, beraz leku ilunean kontu behar dituzu. Hilabeteren bu-

ruan pikoa moztu eta kanpora botatzen dituzu. Baina bertze hilabete baten buruan, bi hilabeterekin berriz hasten dira pikoka eta anilla ttiki batzuk jartzen dizkiegu pikokan, ezin dute pikoka erabat itxi, horrela ez diote elkarrerri lumak kentzen eta ezin dute odolik egin. Behin bateri odola ateratzen badiote hura hil arte ez dute pakean uzten eta gainera jan egiten dute ondotik.

Zer zaintza behar du faisaiak?

Orain, arraultzea paratzen ari direnean pentsu konpuestoa ematen diegu. Hiru hilabete arte ere bai eta hortik aitzinera artoa eta kanpoan harrapatzen dutena.

Abuztu aldera eguzkiak indarra eta argia galtzen du, lasaitzen hasten dira eta handik aitzinera ez dute arazorik ematen.

Zenbat arraultze paratzen dute egunean?

Orain egunean 150 bat jartzen dute, 160tan ere izan dira. Hemendik aitzinera jautsiko da eta Sanfermin inguruan geldituko dira eta hortik aitzinera ez dute garanik ere jarriko. Martxo hondarrean hasi eta Sanfermin arte jartzen dute. Urte guziko produkzioa tenore horretan egin behar duzu. Faisaien inkubadora galeperrena baino haundiagoa da. Haizea mugitzen duen bentiladore bat badu, dena tenperatura berean egoteko. Azpian bandeja bat badugu beti urarekin, %80ko hezetasuna egiteko eta berotasuna galeperrena bezala, 37,7 gradu.

“Arront bitxo aluak dira faisaiak, jaio orduko elkarrerri pikoka hasten dira”

faisaia gordetzen ahal. Sobratuta ere norabait lekutu behar dituzu, elkar xehatzen dute, oilarrak elkar hiltzen dute. Orain umeak atera eta urtarri-lerako saldu edo lixatu behar dituzu. Ar bat lau edo bortz emerekin jartzen dugu kaiolan. Barrenean inkubadorak ditugu. 1.500 badira sortuak eta bertze bizpahiru mila sortuko dira sa-soi honetan».

UNTXI BASAK BAZTANGO MENDIETAN LIXATZEKO

Faisaia da Baztango granjako izarra baina galeperrearekin eta mendiko untxi basarekin ere ari dira lanean. «Mendiko untxia dena Baztango soziedadean lixatzeko izaten dugu –dio Bazterrikak–. Normalki egunez gordeak izaten dira, baina gauez denetik egiten dute. Kaiola bakoitzean, arra eta emea bere umeekin izaten ditugu. Umeak 28 egunekin amari kendu eta bereiz paratzen ditugu, jaten ikasteko. Untxi emea umatu eta 24 orduz berriz ere ernari da. Sasoina delarik hilabetero umatzen dira, urtean hiru, lau edo bortz umaldi izaten dituzte. Abuztutik aitzinera hauek ere jausten dira. Aldiro bi eta lau ume artean egiten dituzte. Berrogei bikote ditugu hemen eta mendira 500 bat untxi botatzen ditugu urtero. Hori Baztanerako gutti da, 37.000 Hektareatan untxi gutti gelditzen da».

GALEPERRA: JAIKO ETA BI HILABETERA ERRUTEN

Eustakiok aipatu digunez, galeperrek metrailetak bezala egiten ditu arraultzeak, ez da urte guzian gelditzen. «Orain ateratzen ari gara, bi hilabeteren buruan, Amabirjinetako mendira ateratzeko. Arraultzetik ateri eta bi hilabeteren buruan erruten hasten da galeper kumea, batzuetan lehenago ere bai, prozesu ikaragarri azkarra du. Sortu eta zortzi egunetan ere salto ikaragarria egiten dute». Bertze bitxikeri bat ere badute, beti arratsaldean erruten dute, baita faisaiak ere. «Oiloak normalki goizez egiten du, baina hauek arratsaldean. Arraultzeak astean behin inkubadoran sartu, 37,7 gradutan kontu eta 14-16 egun behar ditu sortzeko eta bi hilabetera lixatzen ditugu ehizirako. Puska bat Baztanen, bertze puska bat zakurrek ikasteko. Ehun bat galeper ditugu, arraultzeak paratzen. Gero ehizirako eta zakurrari erakusteko ibiltzen dira. Hemen hazi eta gero, 1.500 bat botatzen ditugu Baztanen beda erdia irekitzean, abuztuaren 15ean. Herri bakoitzari deitzen zaio, etortzen dira eta eramaten dute. Herri bakoitzak, 60, 80, 100... eramaten ditu. Elizondok, ehiztari gehiago dituenek 200 eramaten dituzte. Beraiek nahi duten lekuan bota eta ehizian aritzen dira. Gero badira parti-



Arraultzeak 37,7 gradutan kontzen dira inkubadoratan.

kularrak etortzen direnak, zakur bati erakusteko eta hauei saldu egiten diegu, ez dute aunitz balio, euro terdi kobratzen dugu bakoitza». Arraultzeak egosita jateko ere onak omen dira. «Frantzia nonahi ikusiko dituz saltzeko eta kolesterolik ez duela erraten dute, ez dakit, ez bainaz medikua».

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Comission Paritaire: En cours

TIRADA (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZAILEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. **PRESIDENTEA (Président):** Pello Apeztetxea. **KUDEATZAILEA (Gérant):** Joxemanuel Irigoien. **ZUZENDARIA (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **PUBLIZITATEA (Publicité):** Kulturkari, SLU **ADMINISTRAZIOA (Administration):** Amaia Goia. **BERRIEMAILAK (Collaborateurs):** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

INPRIMATEGIA (Imprimeur): Gertu. **ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Belaun aldea Bizirik taldearen oharra

Baztango Udaletxeak, Baztango aurtengo aurrekontuak onartu ondok, Belaun Aldea Bizirik taldetik, hausnarketa hauek egiten ditugu:

Onartu berri diren aurrekontuek, udalaren zorpetze maila kezkarria erakusten dute. Aurrekontu hauetan inbertsio parrasta onartu da eta horrek, neurri bereko zama ekonomikoa ekarri du. Hortaz, kontutan hartuta udalaren zorpetze maila zenbatekoa den, pentsaezina da Elizondo-Aldude arteko mendiko errepide egitasmoarekin aitzinerat jarraitzea. Zeren ez baita atzentzen ahal, egitasmo honen finantziatzeo Europatik eta Nafa-

roako Gobernutik dauden dirulaguntzetatik gain, Baztango Udaletxeak ere errepidearen finantziaketan parte hartu beharra duela.

Modu horretan, ikusita mendiko errepide berri honen egiteko ez da goela inongo behar sozialik, eta hortaz, ez lukeela inongo etekin sozialik ekarriko, inbertsio zentzugabea eta ilupea litzateke; jakinki gainera Baztanen berean, zenbat behar sozial dauden: baserrietara bide onak, Arizkunenea kultur etxea larunbatetan hestea... Errepide berriaren egitea, Baztandarren dirua alferrik gastatzea litzateke, eta hori onartezina da.

Zernahi gisaz, beharrezkoa da mendiko errepide berri honek ekarriko lukeen ingurugiro eragin gogorraz ohartaraz-

tea; errepidea, Komunitatearendako Interes Orokorreko (LIC gazte-leraz) izendatutako tokian barna joanen litzatekeelakotz. Izen hori duten tokiak, beren balio ekologikoa dela-eta, zaindu beharreko tokiak dira, eta errepideak zaindu beharrean xehatu eta hondatuko luke tokia. Inguru horretan gainera, mehatzatutako animalia espezie pila bat zenbaitzen ahal da, halaberan, balio handiko linge eta iturburuak daude. Eta guzti hori, natur inguru zoragarri batean. Alabako Harri (1.074 m) eta Hargibelen (973 m) itzalean, Harrikulunkaren ondoan, XXI. mende hasmentan, mendiko errepide berri bat egin nahi izatea da. Hori, egungo testuinguru desarrollistatik bakarrik ulertzen ahal

da, dena merkantzia eta zementura murrizten duena.

Bide beretik, afera honi buruz onartu diren hitzarmen eta txosten desberdinak eskuratzeko egin ditugun eskaerak, ingurugiro gaiei buruzko informazio eskubidean oinarrituta, ez dute deustarako balio izan, udaletxeak mutu, ez baitigu deus ihardetsi. Honek, egitasmoaren gibelean dagoenari buruz zer pentsatu franko ematen du.

Bertze behin, mendiko errepide egitasmo hau erokeria bertzerik ez dela erran nahi dugu, eta behingogatik, egitasmoa gelditu dezatela.

Belaun Aldea Bizirik.

UDALBILTZA^k.
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltzainfo.com

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2004-06-07

«Denetik egin dugu bisitatu ahal izateko. Salto del Negron zegoenean, astean behin bakarrik zegoen hegazkina, beraz zazpi egun ematen genituen Las Palmasen bueltaka, zer egin jakin gabe, gero hamar minutuz ikusteko. Puerton bertz minutuko bisitak ere izan genituen... Gainera, beti egon da lehen graduan eta lehen vis a visa duela hamar urte izan zen. 1981ean atxilotu zutenetik lehen aldiz besarkatu ahal izan nuen orduan».

Helena XURIO
Fernando Arburua preso
ohiaren iloba
GARA 2004-06-07

«Aceraliarik gabe gaur egun Lesaka 500 biztanleko herria izanzen litzateke, ostatu eta denda bakarrekarekin. Bizilagunak nekazariak izanzen ziren, baina horretatik ezin da bizi eta aunitzek kanpora joan beharko zuten lanera. Azkeneko berrogeita hamar urteetan eskualdeko motor ekonomikoa Aceralia izan da, lehen Laminaciones eta Altos Homos de Vizcaya. Bortzirietako bizilagunen %80ak Aceralian lan egin du edo lanean ari da».

Juan Fermin MITXELENA
Lesakako alkatea
D.Navarra 2004-06-07

• 11 GALDERA LABUR •

Profesioetan debutatu eta urtea baino lehen binakako finala... Hire ametsak bete dituk?

Irabaztea nahiago nuen, baina oraingoz ametsak betetzen ari direla erraten ahal da.

Banakako finalean ikusten duk hire burua?

Hasi berriak gara honetan eta zaila da. Hemendik urte batzuetara akaso.

Pixkanaka estelarretan sartzea. Dagoeneko errealitatea edo ametsa?

Aukerak izaten ari gara, baina oraindik ametsa da.

Koteto Ezkurra osaba izatea, mesederako edo kalterako?

Bera aitzinean dudanean mesederako, dudarik gabe, aholkuak ematen dizkit eta.

Eta Lizaso irakasle, nahitaez erremontelari atara behar...

Hori bai, ikasteko maisu onak ditugu.

San Pedroetan, aurten ere herrian erremontean aritu behar duzue?

Uste dut baietz. Joan den urtean ere aritu ginen eta aurten gustora arituko naiz herritarren aitzinean.

Zer jarriko eta zer kenduko hukeen bestetako egitarauan?

Ez dakit programa zein den ere!
Errekan sartzeko ohitura mantentzen duk?

Bai, bai... Joan den urtean ez nintzen sartu, baina ahal bada urtero sartzen naiz.

Betizuak edo Trapatan dantza?

Oraintxe konpromiso ederra! Urte batzuetan dantzatu nuen Trapatan, baina igual betizuak nahiago, alaiagoa da.

Noiz aditu hukeen San Pedro Eguneko meza azken aldiz?

Sekulan ere ez dut aditu!

Eta goizeko diana, noizbait aditu duk lo egin ondotik? Eta lo egin gabe?

Joan den urtean aditu nuen lo egin eta gero. Lo egin gabe, beriz, auniztan, kasik urtero!



Patxi OLAZAR
Doneztebeko erremontelaria

Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541

DROGUERIA MOLINERO

PINTURAK
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Helbide berria:
Zalain auzoan,
Aceralia fabrikaren parean
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333
BERA

BERTIZ

Hogeita hamar filmek parte hartuko dute Bertizko laburmetrai lehiaketan

Lehiaketa iragarriko duen kartela Zigako Juan Ignacio Mendiburuk egin du

ttipi-ttapa

Hogeita hamar filme aurkeztu dira Bidasoako filme laburren zinemaldiaren aurreselektziora, iaz aurkeztu zirenen erdia. Antolatzaileen ustez, «sektorearen krisia» izaten ahal da horren eragile. Horregatik, aurten ez da aurreselektziorik egingen eta aurkeztutako filme guzietan parte hartuko dute abuztuaren 23tik irailaren 3ra Elizondo, Doneztebe, Hendaia eta Beran egingen den lehiaketan. Haurren sailean, Glub filmea eskainiko da eta sari banaketa eta bukaera ekitaldia Lesakako Zambra aretoan egingen da irailaren 3an. Aurtengoan, filme laburren lehiaketa eskualdeko jendeak osatutako talde batek antolatuko du. Talde horretako lehendakaria Belen Mutuberria lesakarra izanen da, Bertizko Partzuergoko gerentea, hain zuzen eta Mikel Petirena izanen da idazkaria. Talde honetako



Juan Ignacio Mendiburu zigatarra, irabazle suertatu den kartelarekin.

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

kide den Mari Jose Garmendia elizondarrak aipatutakoaren arabera, «aurkeztutako 30 filmetatik 20 Madriletik heldu dira eta bertzeak Barzelona, Valentzia, Cadiz eta Parisetik». Laburmetrai lehiaketa honek bi helburu nagusi izanen ditu: eskualdera turistak erakartzea es-

kualdeko turismo produktibetatekin eta eskualdeko aisialdirako eskaintza zabaltzea. Azkeneko urteetan bezala, sariak irabazten dituzten filmek Iruñeko Saide-Olite zine aretoetan eskainiko dira. Aurten, bertze sarien artean, bertze Brontzeko Iratze bat banatuko da,

fotografia onenari. Filmerik onenak Urrezko Iratzea eta 3.000 euro jasoko ditu, bigarren saria Zilarrezko Iratzea eta 1.500 eurokoa izanen da, 1.000 euroko saria izanen duten lau Brontzeko Iratze banatuko dira eta publikoak ere pelikularik gogokoena diru-saririk izanen ez

duen Brontzeko Iratze batekin sarituko du.

«FILME LABURRA»

Bertizko Filme Laburren Lehiaketa iragarriko duen kartela Zigako Juan Ignacio Mendiburu gazteak diseinutakoa izanen da. «Filme laburra» izenburua eman dio Mendiburu saritutako lanari. Irabazleak aipatutakoaren arabera, lana diseinatzerakoan zeluloide-paperearen formatu klasikoan pentsatu zuen: «Kartel luzezka egin nuen, argi neukan fondo beltza izanen zuela, fondo horrekin jostatzeko eta kontraste haundiagoa izateko. Gero, kamera gehitu nuen marrazki gisara eta letrak, bertzerik ez!». Kartel honekin, 400 euroko saria jaso zuen Mendiburu Andres Etxenike, Bertizko Partzuergo Turistikoaren lehendakariaren eskutik.

Aurten Baztandarren Biltzarrako kartela ere berak egin izanen da.

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Etzegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alzuri

Sukalde fresneria
eta opariak
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370
BERA

ZJ
Zalain
jateketa
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

bortzirUDI
BERA
KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TXISKEROAK
PLANOAK
FOTOKOPIAK
KOLORETAN
INBIELAK
ENKUAERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
PAPERTEGIA
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUARENKIN
Etzegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21



Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

BERA

«Bera Mugarik Gabe» ekitaldi sorta antolatu du Udalak

Bertakoak eta etorkinak hurbiltzea nahi da egitarau zabalarekin

Amaia eta Ainhoa

Udalak Gizarte Gaie-tarako Batzordea osatu zuen arlo horretan egin beharreko lana haundia zela ikusirik. Lau azpibatzerde osatu eta Gizarte Gaiekin lanean hasi ziren. Bertzeak bertze, etorkinen gaia jorratzen aritu dira eta horren lehendabiziko fruitua «Bera, Mugarik Gabe» ekitaldi sorta antolatu dute. Batzorde honen helburu nagusia etorkinen fenomenoari aurre egitea da. Bertakoak eta etorkinak hurbiltzea eta bi komunitateen arteko distantzia tikitzea lortu nahi da. Hori lortzeko Udalak ekitaldi desberdinak antolatu ditu. Ekitaldi horiek joan zen maiatzaren 10etik 16ra egitekoak ziren, baina Larunen izandako auto istripua dela eta antolatzaileek atzeratzea erabaki zuten. Beraz, ekainaren 14tik 20ra egingen dira ekitaldiak. Aste guztian, Gure Txokoa elkartearen egoitzan, Jamotenean, etorkinek egindako argazki eta margo lanak bildu eta erakusketak jarri da. Astelehene-tik igandera 18:00etatik 20:00etara zabalik izanen da. Zineak ere bere lekua izanen du. «Cu-



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

UGT sindikatuak Baztan-Bidasoa aldeko kongresua egin zuen ekainaren 12an Berako egoitzan. Kongresu honetan, lan batzordea osatuko duten bortz pertsonak aukeratu dira. Kongresuaren aurkezpenean izan ziren Patxi Altxu gestorako kidea, Joseba Marin Nafarroako UGTko antolaketa idazkaria eta Pedro Mazas gestorako presidentea eta eskualdeko delegatua. Patxi Altxuk jakinarazi zuenez, 2002an sortu zen eskualdeko UGTko gestora. Orduan zeuden 117 afiliatuetatik gaur egungo 368ra pasatu dira.

ba feliz» filmea eskainiko da ekainaren 17an Kultur Etxean 20:00etan. Ekainaren 18an, ortziralarekin, 20:30etan, Gure Txokoa elkartearen berendu baten inguruan, etorkinek euren bizipenak kontatuko dituzte. Eta ekainaren 20an besta haundia antolatu da. Goizean zehar areto futboleko partidak jokatu dira kiroldegian. Futbol taldeetan neska zein

mutilak lehiatuko dira, sortzez beratarrak zein kanpotik etorritakoak. Haurrentzako munduko jokoan saioa egingen da 10:00etatik aintzineran kiroldegia aintzineran. Arratsaldean, herrialde desberdinetako ordezkariek euren sukaldaritza gutziak prestatuko dituzte eta Berako abesbatza, trikitilariak eta dantzariak arituko dira bertzeak bertze.

Igerilekua zabalik

Ekainaren 12an ideki dituzte udal igerilekuak. Hilabeteko eta udako abonoak salgai jarri zituzten ekainaren 7tik aintzineran eta oraindik Nafarroako Kutxan eta igerilekuan bertan erosi daitezke. Honetaz gain, aurreko urtean bezalaxe zerbitzu eskaintza zabala egiten dute. Uztailaren 19tik abuztuaren 13ra igeriketa ikastaroak izanen dira. Aquarobic egiteko aukera ere izanen da 16 urtetik goitikoentzat ekainaren 29tik uztailaren 22a arte. Eta 14 urtetik goiti dutenek, urpekaritza probatu dezakete uztailaren 24an. Udako gau bateko II. Ikuskizun Zikloa ere antolatu dute uztailaren 30a eta abuztuaren 27rako. Bertan antzerkia eta musika ikuskizunak izanen dira 21:00etan.

FLASH

Erakusketa

Lamixine BATEk antolatuta, ekainaren 28a arte zabalik izanen da Kultur Etxean Berako hiru gaztek prestatutako erakusketa. «Egun bat bidean» izenarekin, Donejakue bidea egin ondoren beren bizipenak agertuko dituzte. Astelehene-tik larunbatera 18:00etatik 20:00etara idekia izanen da.

Munduko dantzen ikastaroa

Ekainaren 28tik uztailaren 3ra Lamixine BATEk antolatuta Munduko Dantzen Ikastaroa egingen da. Eguneko hiru orduz Maria Agirre eta Amaia Estonbak munduko zenbait dantza sinple eta hemengo bertze batzuk erakutsiko dituzte. Larunbatean, berri-z, Berako Plazan nahi duen guztiarentzat dantza ekitaldi zuzendua antolatu dute. Astelehene-tik ortziralarera 18:00etatik 21:00etara eta larunbatean 20:00etatik aintzera izanen da ikastaroa Jesusen Bihotza ikastetxean. Matrikularen prezioa 20 eurokoa da.

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK
Bera • Tlf: 948 631 235 • 407 406 781

BAR Botxo OSTATUR
☎ 948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

Trafikoa arautzeko plangintza berria abiatu da herrigunean

Haurraren Eguna antolatu dute guraso elkarteek larunbat honetarako

Aitor AROTZENA

Ekainaren 5ean herriguneko trafikoa arautzeko plangintzaren aurkezpena egin zen Herriko Etxeko batzar aretoan.

Apirilaren 19tik honat, trafikoa arautzen duen Udal Ordenantza indarrean sartu zen. Geoztik, informazio eta kontzientziazio kanpaina burutu da eta egin-dako arau-haustek albintek jarritako ohar baten bidez jakinarazi dira eta bide batez, ordenantza bete behar dela oroitarazi. Arreta berezia eskaini zaie apartakazearekin zerikusia duten arau-hausteei. Orain arte oharra bertzerik izan ez bada ere, hemendik aitzinera 30 euroko diru isunak jarriko dira.

Ekimen honen helburua ez da bilketa kanpaina bat burutzea, baizik eta kontzientziazioa, eta oroitaraztea hobe dela herrian kotxea ez erabiltzea. Distantziak ez dira luzeegiak, eta aparkalekuak badira. Herri gunearen zenbait lekutan, eta ordu jakinetan, zerbitzuzko ibilgailuei, auto pribatuei nahiz oinezkoiei ezinezkoa zaie zirkulatzeko. Izan ere, eta udal errol-



ARGAZKIA: AITOR

Ekitaldiz gainezkoa joan zen maiatzaren 29ko Gazte Eguna: kamiseta tailerra (argazkian), eskalada, sormen birziklatua tailerra, bertso-pilota saioa, gaztesarea.com proiektuaren aurkezpena, kontzertua... Egun borobila!

daren datuen arabera, 2.300 ibilgailu motordun baino gehiago dira Lesakan, eta 2.700 biztanle eskas. Zirkulazio dentsitate honi, apartakaleku guneen erabilera okerra gehitu behar zaio, eta horren adibide gisa, gehiago erabiliko ez diren ibilgailuak apartakaleku publikoan uztea. Bertzelako arazoak ere gaineratu behar zaizkio, hala nola, gehiegizko abiadura, soinua edota maiz egiten diren trafikoa arau-haustek.

Trafikoa arautzeko

plangintzaz gain, hila-beteko lehen astelehen eta astearteak autorik gabeko eguna bezala izendatu ditu Udalak.

Haurraren Eguna ekainaren 19an

Larunbat honetan, ekainak 19, Irain eta Otxogorrinea Guraso Elkarteek antolatuta Haurraren Eguna egingen da egun osoan.

Ekaina akautu baino lehen bertze kultur eta kirol ekitaldirik ere izanen da. Ekainaren 18an, klarinete eta saxofoi

kontzertua izanen da Alondigan 18:30etan. Ekainaren 23an, San Juan bezperan, Onin errekararen gainean musika animazioa izanen da 22:00etan. Kirolari dagokionez, ekainaren 20an, Lesakako VII Mendi Itzulia antolatu du Beti Gaztek, ekainaren 26an Agiñako II Igoera Eguzki Elkarteak eta egun berean, Miguel Elizalderen oroimenez jubelendako txirindularitza lasterketa antolatu du Beti Gaztek 16:00etatik aitzinera.

FLASH

Zinegotzi kargu uztea

Azkeneko udal batzarrean bere zinegotzi kargu utzi zuen EAJ-PNV/EA taldeko Esteban Irazoki Irazokik. Azkeneko hiru legealdietan Herriko Etxeko Mendi batzordean izan da Tellegiko Esteban Irazoki, baina denbora arazoak direla medio kargu utzi du. Azkeneko udal hauteskundetan EAJ-EAko zerrendan hurrengoa Agustin Arriola zen, baina honek ez du zinegotzi kargu hartuko, ezta ondotik heldu zen Severiano Txoperenak ere. Carlos Ubiaria da hurrengoa zerrendan eta ikusi beharko da kargu hartzen duen.

Udal aurrekontuan transferentzia

2004ko udal aurrekontuan 63.000 euroko transferentzia egingen da, bi lan egiteko. Honela, Erdiko Errotako kanala konpontzeko 60.000 euro bideratuko dira eta Andra Mari Zahar Etzerako ekipamendua erosteko 3.000 euro. Aipatutako 63.000 euroak karririk asfaltatzeko eta pabimentatzeko diru kontutik kenduko dira.

Zuzenketa

Sanferminetako programaren kontrazala Patti Martinezek eginga da eta ez Imanol Lopezek, aitzineko alean aipatu genuen bezala. Portada irabazlea Meritxe Biurarenarena da.

ANAN
Janari Denak
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZEHAR
JATE TXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
DANTZAK
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BOBKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ETXALAR

Eguraldia lagun izan zuen XII. Gasna eta Artisau Feria Egunak

Amaiurko Felisa Irungararen gasna izan zen onena

Joseba eta Nerea

Joan den ekainaren 6an izan zen XII. Gasna eta Artisau Feria Eguna eta goiz osoan herritar eta bisitari anitz hurbildu ziren plaza bazterrean egin zuen eguraldi ederrak lagunduta. Bertan hainbat artisauren lanak izan ziren ikusgai eta salgai, eta baita ere zonaldean sona handia duen gasna lehiaketa. Aurten 16 izan dira aurkezturiko gasnak, denak zonaldekoak, eta epaimahaiak lana bukatutakoan, biak aldera, beraien erabakiaren berri eman zuten. XII. edizio honetako irabazlea Amaiurko Felisa Irungarai izan zen, baina hau ez da lehenengo aldia sariren bat lortzen duena, joan

den urtean 3. postuan gelditzea lortu zuen. Bigarren postua lortu zuena Urdazubiko Etxelekua Gasnategia izan zen. Eta hirugarren saria, herrian bertan gelditu zen, Basateko bordako Isidro Ariztegi, iaz lehen saria eskuratu zuen bera. Herriko sariari dagokionez, Donpauleneko Bordako Dolores Maritorenak irabazi zuen Etxalarko lehenengo saria, joan den urtean sailkapen honetako 2. postuan gelditu bazen ere, eta Landaburuko Bordako Asun Ulaziak bigarrena.

110 lagun bildu ziren herri bazkarian eta eguna bukatzeko, 17:30etan herriko dantzariak saioa eskaini zuten bertan bildu zirenen goza-



ARGAZKIAK: JOSEBA

Gasna lehiaketan saritutako batzuk ageri dira argazkian.

menerako. Egun aparta pasatu ahal izan zuten besta honetara hurbildu ziren guztiek. Eta lerro hauen bidez, Altxata Kultur Elkarteko juntakoek, egun hau aitzinera ateratzen lagundu zuten hainbat eta hainbat herritarrei esker ona adierazi nahi die.

Haurren eguna

Joan den igandean, ekainaren 13an, XVII. Haurren eguna ospatu zuten Landagain eskolako ikasleek. Guraso elkartean Landagin eskolako irakasleekin batera antolatzen duen bestan ikasturteari amaiera ematen zaio ekitaldiz betetako egun honetan. Goiz osoan ze-



Eskulangileen ferian ere giro ederra izan zen.

har erakusgai egon ziren urtean zehar egin dako eskulan, bidaien argazkiak eta baita haurrek idatziriko ipuinak. 12 eta erdietan ipuin topaketari eman zitzaion hasiera, haur batzuk ipuinak irakurri zituzten eta guraso elkarteko ki-

deek haur bakoitzari ipuin bana eman zieten. Segidan bazkaria izan zuten 35 bat haurrek frontoian. Eta eguna bukatzeko, 15:30etan Marsel Magoak eskainitako ikuskizunaz gozatu izan ahal zuten bildutako haur eta gurasoek.

Altzate, 19•948630786 • BERA

© 948631076 • BERA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

HERRIKO
JANARI • JATETxea
Bazkaria, 15 • 948 63 14 16
Puzos • NAFARROA

ARANTZA

Bi urteren buruan hirugarren mendi itzulia egingen da

Bigarren urtez eginiko mendi itzulia arrakastatsua izan da

Nerea ALTZURI

Eguraldia ez zen hagitz ona izan, baina maiatzaren hondar eguneko goizean mendigoizalez josi ziren herriko mendiak. 364 mendigoizalek parte hartu zuten aurtengo edizioan eta iaz bezala berrogei lagun aritu ziren eguna borobil ateratzeko lanean. Joan den urtean bezain laino itxia ez bazen ere, euri langarra eta frexkotasuna goizeko lehen orduko eguraldiaren ezaugarriak izan ziren. Ez zituen ordea mendizaleak uxatu: goizeko 7etarako 250tik gora lagun herriko plazan zeuden izen emateko esperotan. Jendearen etorrerak berotu zuen giroa. Herri gunean nahiz mendi gainetako kontroletan, jatekoak, edatekoak eta era guzietako hornigarriak zeuden. Ederki markatutako mendi

ibilaldian, herrikoak, eskualdekoak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak izan ziren. Goizean goizeko jendearen martxak, hurrengo orduetarako horridurarako elementuen errestoa eman zuten, us-te baino jende gehiago etortzeak, horrelako larritasunak ekartzen dituelako. Halere, kanpoko eta herriko laguntzaileek emaniko laguntzak guzia asetu zuten. Itzulia egin ondotik, luntxa izan zen herriko plazan. Antolatzailak kontent agertu dira aurtengo edizioarekin. Mendi itzuli ondoko ortzirailean bilera egin zuten ekimen bulkatzaileek balorazioa egiteko. Hemendik bi urtera III. mendi itzulia egingen dela erabaki zuten.

Bertzalde, Ternida egun ederra antolatu zuten ekaitza elkarteak joan den ekainaren 6an. Eguraldi erogarriekin



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den alean aipatu bezala, lagun talde honek aste bat pasatu du Katalunia aldean. Ekainako estreineko astean ez dira geldirik egon hango lekuak ezagutzen. Autobusean herritik maitzaren 30ean abiatu ziren eta ekainaren 6ko arratsean etxera ailegatu. Herritarrak ezezik inguruko herriko lagun batzuek parte hartu dute bidaian. Hagitz ongi pasatu dutela erran digute. Ez dute behintzat itxura txarrik!

bat egin zuen giroak ere mendian.

Ur hartunea eta sarea

Herriko ur hartunea, sareen zatiketaren moldaketak eta deposito berria egiteko obrak behin behinekoz sartu ditu Nafarroako Gobernuak 2004ko Toki Azpiegituren Planean.

Obraren proiektu teknikoa egiteko eta zuzendaritza fakultatiboa esleitzeko irekitako epean bederatzi enpresa aurkeztu ziren eta udalak erabaki zuen lehia-

keta hutsik uztea eta berriro esleitzea. Irekitako hurrengo epearen barnean hiru esnpresa aurkeztu dira: Ingenieria Macla SL, Ingenieria Suedin SL eta Ingenieria Europactizyme SL. Kontratazio mahaiaren akta ikusirik, Arantzako ur hartunea, sareen zatiketaren moldaketak eta deposito berriaren obren proiektu teknikoa eta zuzendaritza fakultatiboa egiteko Ingenieria Europactizyme SL enpresari esleitzea erabaki zuten Udalak ahobatez, maiatzaren 7an egin-

dako batzarrean. Enpresa honek 19.500 eurotan, BEZ barne egingen du lana.

2004-2005 ikasturtea

Akautzear da ikasturtea eskolako laguntzat. Azken egunak dituzte ikasleek eta irakasleek. Abudo, udako oporrak hartuko dituzte. Heldu den ikasturtean, irailean hiru urteko lau titirik estreinatuko dute eskola mundua: Julen de la Loma, Igor Altzuri, Andres Arratibel eta Aimar Zubieta.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ALBERGEEA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
zolak akutzilatzen eta barnizatzen ditudu
Tfnoa: 948 631 342 BERRA Tfnoa: 948 637 172 LESAKA

IGANTZI

Aurten ere Xabi Telletxeak irabazi du herriko mendi bizikleta proba

3 minutu eta 15 segundu behar izan zituen jautsiera osatzeko

Oskar TXOPERENA

Biltoki Elkarteak antolatutako Igantziko Mendi-bizikleta jaitsiera probaren hirugarren edizioa izan zen ekainaren 5ean, Euskal Herriko Txapelketa jokoan aurtengoan. Iaz bezalaxe, eguraldi ederra izan zuten ibilbidea osatzera etorritako 48 txirrindulariak, eta, arrazoi horren ondorioz, gogortu egin zitzaizen ibilbidea. Istripu tiki ugari izan zen, zalapartatsuak baina larritasunik gabekoak zorionez. Kanpoko probetan ere bikain ibiltzen den Xabi Telletxeak bigarren urtez jarraian irabazi zuen proba eta aurten, gainera, Euskal Herriko Txapelketa. Lehen aipatu ditugun istripuak direla medio ilunabarra zen sari banaketa egin zenerako. Xehetasun gehiagoko kirol orrialdean.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Urte sailtxoa darama Xabi Telletxeak mendi-bizikleta jaitsieren munduan, hagitx maila onean gainera. Igantziko proban txapel bat gehiago lortu zuen lehengoan, Euskal Herrikoa.

Igerilekurako sarreren salneurri berriak

Aitzin horretan, zen-

bait aldaketa edo egokitzapen egin ditu Udaltzarak igerilekuen sarreren salneurriari dago-

kienez. Igoerak izan dira tarifa guzietan, Udaltzaren erranetan aurten igerilekuetan Nafarroa-

ko Gobernuak eskatu dituen aldaketek gastu handiak eragin dituztelako. Bertze aldaketa garrantzitsua ere onartu dute, bertan eroldatua dagoenak merkeago ordainduko baitu uda guzira abonua. Hauek izanen dira aurtengo salneurriak helduentzat: egunekoak, astez: 4,70 euro, asteburu eta besta egunetan: 6 euro; uda guzira: abonua: bertakotzat: 35,16 euro; kanpotarrentzat: 59,87 euro. 18 urte bitartekoak salneurri merkeagoak izanen dituzte.

Ehiztari Elkartearen oharra

Oharra zabaldu du herrian barrena Abelu Ehiztarien Elkarteak. Bertan paratzen duenez, ekainaren 30a baino lehen egin beharko omen dituzte bazkideek egin beharreko aldaketa guzikiak: bajak, bikote aldaketak, bazkide berriak, etabar...

FLASH



Ikasturteko hondarrek bestak

Egun gutti falta zaizkie ikasleei merezitako oporrak hartzeko. Urteroko moduan zenbait ekitaldi izaten da garai honetan eskolaren inguruan. Ekainaren 4ean izan zen Haurraren Eguna. Egun guzian egon ziren martxan gaztelu haizatuak eta kartak. Merkatenean bazkaldu zuten ikasle eta irakasle guzikiak elkarrekin eta arratsaldean berendua ere izan zen. 18an, berriz, ateraldia eginen dute Lizarra ingurura. Aloko industria ekologikoa bat eta Irantzuko Monastegia bisitatuko dituzte eta arratsaldean Abarzuzako igerilekue-tara joateko asmoa daukate. Bertalde, aste honetan akautzen da udako aisialdi ekintzetan aritzeko izena emateko epea. Oharra bidalia zaie gurasoei informazioarekin.



Nafarroako Arartekoa

Maria Jesus Aranda, Nafarroako Arartekoa, Igantzian egon zen maiatzaren 19an. Nafarroako bertze udal anitzek bezala, elkarlan hitzarmena sinatu du Igantziko Udalak Arartekoarekin. Hitzarmenaren sinadura ekitaldira Andaluziako Arartekoarekin, Jose Chamizorekin etorri zen.

BERRIBIZUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

KULTURA

Hainbat literatur sari lortu dituzte aurten ere eskualdeko ikasleek

Ekainaren 5ean egin zen sari banaketa Iruñean

ttipi-ttapa

Luis Campoy Zueco, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak literaturako eskola lehiaketan sariak banatu zituen ekainaren 5ean Tronuaren Aretoan. Zehazki, Literatur lehiaketan olerki eta narratiba sailetan, Jose Maria Satrustegi Etnografia Lehiaketa eta Pedro Diez de Ulzurrun Irakurmen Lehiaketaren sariak banatu ziren. Guzira 600 lan baino gehiago aurkeztu dira lehiaketa honetara eta horietatik 27 saritu dira. Olerki eta narratiba modalitateetako lehen sariak "Lenarriak V" izeneko liburuan argitaratu dira. Argitalpen hau ikasle saridunei eman zaie sari emate ekitaldian. Urtero bezala, ttipi-ttapa hartzen duen eskualdeko hainbat ikasle izan dira sarituak.

Olerki modalitatean, honako ikasle hauek jaso dute sariren bat: DBHn Goizuetako Andres Narbarte "Xalto"



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Literatura, Etnografia eta Irakurmen lehiaketetan saritutako ikasleak, Nafarroako Tronuaren aretoan egindako sari banaketan.

ikastetxeko Olatz Zubirik, Maialen Huizik eta Ane Tabernak.

Narratiban, Lehen Hezkuntzan, Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Elixabet Irazokik, Leitzako Erleta ikastetxeko Malen Lizarragak eta Berako Labiaga ikastolako Maddi Sese. DBHn, Goizuetako Andres Narbarte "Xalto"

ikastetxeko Bianditz Narbarte, eta Labiaga ikastolako Iraia Etxabidek.

Pedro Diez de Ulzurrun Irakurmen Lehiaketan saritua izan da Leitzako Erleta ikastetxeko Berritsu taldea. Jose Maria Satrustegi Etnografia lehiaketari dagokionez, sariak jaso dituzte Arantzako

Itziar Mitxelena, Maider Almandoz eta Ainara Aranburuk, Goizuetako Unai Loiarte Ansak eta Leitzako Amazabal Institutuko Joanes Lizarraga Olanok. Etnografia lehiaketan parte hartzeagatik sarituak izan dira Goizueta eta Arantzako ikastetxe publikoak eta Leitzako Amazabal Institutua.

Ofizialak ez diren ikastaroentzat bekak Bortzirietan

ttipi-ttapa

Aurten ere, ikaske-ta ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi eta gisakoetan parte hartzeagatik, Bortzirietako herritarrek diru laguntzak jaso ahal izaten dituzte, edozein gairi buruz euskaraz egiten diren ikastaroen-gatik eta, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenengatik. Diru laguntza hauek jaso ahal izateko, interesatuek honako baldintzak bete beharko dituzte: eskaera egiten duten momentuan Bortzirietako udal-erri batean bizitzea, guttienez 16 urte izatea eta eskatzen diren agiri guztiak ezarritako epean aurkeztea. Zentzuzkoari dagokionez, matrikula gastu guztiak estaliko ditu, beti ere 120,20 euroko gehieneko diru laguntzarekin. Xehetasunak Euskara Mankomunitatean.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK,
 VENECIANAK... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

gaztelu scl
iturgintza

Kalefakzioa • Saneamendua • Gasa

© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

MALERREKA

Saldiasko Sanjuan bestak ekainaren 23tik 27ra

Igandean profesionalen arteko pilota partiduak jokatuko dira

Asteazkena 23

Bezpera

20:00etan ohiturazko baztan zopak Herriko Ostatuan.

22:00etan Sanjuan suak. Gauetz dantzaldia Modestorekin.

Osteguna 24

San Juan Eguna

10:00etatik aurrera eta egun osoan Beti Alai txarangak alaituko du herria.

11:30etan Meza Nagusia San Juanen ohoretan.

12:30etan herriko mus txapelketa.

17:30etan pilota partiduak. Gazteak: G. Juanenea-Babaze; E, Urrutia eta U. Urrutiaren kontra. Jubenilak: Narbarthe-Ezkurra; Arregi-Ibarrenen kontra.



Arratsaldez eta gauetz dantzaldia MODESTO-rekin.

Ostirala 25

11:00etan herriko gazteen arteko herri kirolak.

Goiz eta arratsaldez umeen jokuak karts eta gaztelu haizatuekin.

14:00etan herri bazkaria Herriko Ostatuan.

Arratsaldez eta gauetz dantzaldia TRAKETS taldearekin.

ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZIA
**Urtero bezala, mahaia-
ren inguruan bilduko
dira aurten ere sal-
diastarrak. Herri baz-
karia ostiralean, ekai-
naren 25ean izanen du-
te Herriko Ostatuan.**

Larunbata 26

12:00etan herriko gazteen arteko erremonte partiduak.

16:00etan herriko plater hausketa txapelketa.

18:00etan herri kirolak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Igandea 27

13:00etan aizkora apustua: Mikel Mindegia-Vicente; Larretxea-Xabier Mindegiaren aurka.

17:30etan pilota partiduak. Gazteak; A., Juanenea-U. Madariaga, Iraola-Bendoiroren kontra. Afizionatuak: Goizueta-Mitxeko; Antton-Erasoren kontra.

Arratsaldez eta gauetz dantzaldia MODESTO-rekin eta festen bukaera.

GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia


LESKA

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE


Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lehoak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujantxoa' Mazorra
Zahar antzekoa Txapeletua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DONEZTEBE

Doneztebeko hiru neska garaile Nafarroako judo txapelketan

Noelia Ariztia eta Itziar Jorajuria 23 urtez beheitikoetan eta Cristina Mindegia kadetetan

ttipi-ttapa

Doneztebeko Erreka Kirol Elkartearen barrenean judoko sekzioa lan hagitz ona egiten ari da. Oskar Mindegia zuzentzen du eskola hau eta Malerrekako gazte aunitz aritzen dira bertan. Egiten ari den lanaren adierazgarri da azkeneko Nafarroako judo txapelketan lortutako emaitzak. Horrela, Doneztebeko hiru nes-

ka Nafarroako txapel-dun suertatu dira beraien kategoriatan: Noelia Ariztia 23 urtez azpikoetan, 52 kilo baino gutxiago dutenen artean; Itziar Jorajuria 23 urtez azpikoetan, 63 kilo baino gutxiago dutenen artean eta Cristina Mindegia kadete mailan, 57 kilo baino gutxiago dutenen artean. Orain Espainiako txapelketa prestatzen ari dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako judo txapelketan podiumeko goitiko koxkara igo ziren Noelia Ariztia eta Itziar Jorajuria 23 urtez beheitiko mailako 52 eta 63 kilo baino gutxiagoko kategoriatan eta Cristina Mindegia, kadete mailako 63 kilo baino gutxiagoko kategorian. Argazkian, Oskar Mindegia irakaslearekin ageri dira.

Doneztebeko III. Akordeoi Topaketa egin zen ekainaren 5ean

Herrikoekin batera, Baztan eta Lesakako akordeolariak izan ziren

ttipi-ttapa

Ekainaren 5ean, Doneztebeko Hirugarren Akordeoi Eguna ospatu zen. Herrian barna kalejirak ziren eta Santa Luzia plazan kontzertua eta erromeria entzun ahal izan zen. Kontzertu honetan partaide izan ziren Manuel eta Eusebio, Angel Estanga, Joxan Goikoetxea, Xalbador Madariaga,

Miguel Iparragirre, Iñaki Dieguez, Josu Juarena, Mikel Urtxegi eta Lesaka, Elizondo eta Doneztebeko akordeolariak.

Bertze aldetik, ekainaren 12an ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuen Agorreta Musika Eskolak elizan. Heldu den ikasturterako matrikula epea itxi da oraingoz, baina iraila-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Doneztebe, Baztan eta Lesakako Akordeoi Eskoletako musikariek parte hartu zuten Doneztebeko Akordeoi Topaketan.

ren 1etik 10era bertze aukera bat izanen da.

Orduan, Udaletxera joan beharko du ikastaro

ezberdinetan izena eman nahi duenak.

LANA

Maiatzean 505 langabetuk izena emana zuten Doneztebeko Enplegu Bulegoan

Aurten hilabetez hilabete jausten ari da kopurua eta apirilean baino hamasei guttiago dira



tti-pi-tapa

Maiatz akabailan 505 lagunek emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan, apirilean baino 16 guttiagok. Langabetu horietatik 289 emakumeak ziren eta 216 gizasemeak.

Langabetu gehienak emakumeak baldin bada ere, apirilan baino 18 emakume guttiago daude lanik gabe (307 ziren apirilean) eta 2 gizon gehiago (214 apirilean). Joan den urteko maiatzean baino 24 langabetu guttiago daude aurten hilabete berean.

Azkeneko hamabi hilabetetako datuei erreparatuz, 2004ko urtarilla izan zen eskualdean langabetu gehien eza-gutu zituen hilabetea, 620 lagunekin eta 2003ko urrian guttien izan zuena, 489 langabaturekin. 2003ko ekainean 506 langabetu zenbatu ziren, uztailean 522, abuztuan 533, irailan 542, urrian 489, azaroan 493 eta abenduan 517; aurten urtarilean 620 langabetu ziren (258 gizaseme eta 362 emakume), 589 otsailean (240 gizon eta 349 emakume), 569 martxoan (228 gizon eta 341 emakume) eta 521 apirilean (214 gizon eta 307 emakume). Beraz, aurten hilabetez hilabete jausten ari da kopurua.

Dena den, banaz berzte langabezian dauden bi gizonekoengatik hiru emakume daude egoera berean.

H N HEMEN I Z I
HI TEK EKIN I U U EZTEK

ru urr zt n
zk zut n
h t k k



HI TEK
EST LE



HI TEK
FLEXI LE



HI TEK
SEGU



HI TEK
MULTI LE



HI TEK
SEVI LE



HI TEK
VINCOL



HI TEK
HJ



HI TEK
VILE



HI TEK
I LE



HI TEK
CECIENTE

N f r r u r l K u t x H t u r z l s n t z n z u,
t h r n r e n, r u u r r z t l z u n u r t u u z u.
r r h r r z n r n t z , r s e s u n t
m l u t s u n r n.

www.rur.lktxa.com

**NAFARR AK
RUR L KUTXA**

GOIZUETA

Maialen Uitziri irabazle Nafarroako Eskolarteko Bertso txapelketan

Bertso idatzietan berriz, Xumar Bakerok lortu zuen lehen saria

Esteban AROTZENA

Maialen Uitziri eta Xumar Bakerok, 13 urteko bi herritarrek Nafarroako Eskolarteko Bertso txapelketaren lehenengo sariak jaso dituzte aurten, Maialenek bapateko modalitatean eta Xumarrek idatzietan.

Maiatzaren 29an jokatu zen Elizondonbapateko finala, bertso eskolen arteko egun osoko topaketaren barrenean eta, esan bezala, Maialen Uitzirik jantzi zuen txikien mailako zapela. Aipatu beharrekoa final horretan bertan kantatu zuela Bianditiz Narbartek ere, oso lan

txukuna eginez gainera.

Bertso-paperean sari banaketa Berriozarren egin zen maiatzaren 27an, eta hantxe jaso zuen Xumar Bakerok bere adineko irabazle-ari zegokion oparia.

Eskolako ikasleen lorpenekin jarraituz esan, «Tranqu», kirol jardunetako literatur lehiaketan ere bi herritar sarituak izan direla: Olatz Zabala 5. mailan eta eta Maialen Uitziri DBH-1ean. Ekainaren 10ean Nafarroako Parlamentuan egindako ekitaldian jaso zituzten sariak.

Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) izena ematen duten herritarrek dirulaguntza jasoko dute Udal Euskara Zerbitzutik. Horretarako, ekainaren 30a baino lehenago egin behar da eskaera Leitzako Udaletxean zerbitzu honek duen bulegoan (948 510814 telefonoan edo leitzaldea@euskalnet.net helbide elektronikoan. Egoitza eta matrikula ordaintzen duenari gastuaren %80ko laguntza emanen zaio. Matrikula bakarrik ordaintzen



Utzitako ARGAZKIA

Maialen Uitziri txapelkun izan zen Elizondon eta Bianditiz Narbartek ere parte hartu zuen finalean.

duenari, berriz, %60koa. Udalak UEUko ikasleak laguntzeko onartutako diru kopurua proportzionalki banatuko da eskaera egiten duten

herritar guzien artean.

Laguntza eskatzen duenak matrikula eta egoitzaren agiriak eta dagozkion ordainagiriak aurkeztu behar dituzte.

ARESO

Sokatira taldea lanean

560 kilotan dute itxaropena

Juana Mari SAIZAR

Sokatira taldea dagoeneko lanean gogor ari da entrenatzen eta txapelketan parte hartzen ere hasi da. Oraingoz pisu haunditan lehiatu da eta emaitzak ez dira hain onak izan. Itxaropen haundia 560ko pisuan daukate. Ikuskizun bat herrira ekarri behar omen dute iaz bezala.

Udal langilea

Udal langilearen fro-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Pake-Toki elkartearen 25. urteurrenean Jose Fermín Gomez lehenbiziko lehendakariak tarta puskatzeko ohorea izan zuen.

gak dagoeneko bukatu dira. 2 pertsona baka- rrik aurkeztu ziren eta teorikoan batek baka- rrik gainditu du. Prakti- koa gainditu eta gero Xabier Nieto izanen da udal peoia lanaldi er- dian.

Laguntzak

Kirola eta kanpo ekin- tzarako diru laguntzak zabaldu ditu udalak herriko 6 eta 16 urte bitar- teko umeei. Aurkeztu behar dira gastuak eta justifikanteak, kirolenak urte bukaeran.

ARANO



San Roke basilizari beste atea egin zaio alde batean

Kontxi KLABER

Bi urte beteko dira aurtengo udan San Roke basilizari teilatu berria eman ziotela. Orain berriz ermitari bazter batetik atea egin zaio, adi-

neko jendea arazorik gabe sartu dadin, izan ere orain artean eskailerak gora igo behar ziren eta batzuentzat ez zen oso eroso. Orain atetik sartzen ahal dira.



kirol gehigarria denboraldiko balantzea

Igoeraren gozotik jautsieraren garratzera



Konpetizio kirolean helburuak betetzen saiatzen dira kirolari eta talde ezberdinak. Batzuk mailaz igo nahi izaten dute, bertzeek ez jautsi, zenbaitzuk helburuak betetzen dituzte, bertzeek ez. Hori baita kirola! Gure eskualdean ere horretan ibili dira talde ezberdinak joan den urteko udazkenean hasi zen denboraldian. Igoeraren gozoa dastatu dute **Baztango eskubaloi taldeko neskek** (argazkian). Orain, diru kontuak estali behar dituzte igoera hori gauzatu ahal izateko. Baztandik mugitu gabe, heldu den urtean maila bat goitiago arituko dira **senior mailako errugbilariak** eta jubenil mailako futbolariak. Jautsieraren garratza **Leitzako Aurrera futbol tal-**

de nagusiak ezagutu du, Preferente mailatik Errejonaleko lehen mailara jautsi baita. Maila horretan **Baztan futbol taldea** izanen du, ez baitu igorarik erdietsi. Bortzirietan, bi futbol talde nagusiak aurtengo maila beretan arituko dira heldu den denboraldian. **Berako Gure Txokoak** gol batera izan zuen Gipuzkoako Preferenterako igoera, baina ezin izan zuen sartu. **Lesakako Beti Gaztek** sufritu behar izan du maila hori eusteko.

Eskubaloiara bueltatuz, **Doneztebeko Erreka talde nagusiak**, errebotez bada ere, maila mantenduko du. Kadete mailako mutikoek denboraldi boro-bila egin zuten eta kopako finala jokatu zuten.

<p>Ahatekietan adituak eta arituak</p>			<p>Martiko Pol. Zalam, 4/n 31780 Bera, Nafarroa Tel: 948 625010 Fax: 948 625031 www.martiko.com</p>	<p>DENDA ORDUKIA 12:30-14:30 14:30-17:00</p>
			<p>Martiko Pol. Zalam, 4/n 31780 Bera, Nafarroa Tel: 948 625155 Fax: 948 625157 www.martiko.com</p>	

ESKUBALOIA

Baztan Kirol Taldeko emakume seniorrek Maila Nazionalera igotzeko aukera dute

Lehen mailan aritzeko, aurrekontua estaltzen lagunduko duten babesleak behar ditu

Gan den urtean bezalaxe, Baztango Kirol Taldeko emakumeen senior taldea nagusi izan da Nafarroako Bigarren maila Nazionalera. Berdinketa bat baztertera utzita, bertze partidu guztiak irabazi ditu. Nafarroako liga hori irabazi ondotik, Lehen Maila Nazionalera igotzeko sektorea Logroñon jokatu zuten, Zarautz, Gaztela Leongo Aula Cultural Yarbiss eta Aragoiko Maristas Orange taldeen aurka. Gan den urtean Elizondon jokatu zen sektorea eta ez zuten partidarik irabaztea lortu, bi galdu eta bertzea berdinduz. Logroñon, ordea, ez zuten partidarik galdu. Lehenbizikoa Zarautzen kontra hogeina berdindu zuten. Yarbiss taldeari 33-32 irabazi zioten eta Maristas taldeari 35-15. Zarautzek ere bertze bi partidak irabazi zituen eta golen aldearengatik lehenbizikoak izan ziren gipuzkoarrak baztandarren aitzinetik. Baztango eskubaloia taldeak bertze sektorean bigarren izan zen Farho Gijon taldearen kontra jokatu zuen, hirugarren posturako lehian eta 21-19 galdu zuten. Zarautzek finala irabazi zion Lleidari. Baztango Kirol taldea laugarren izan zen eta berez, hiru lehenbizikoek dute mailaz igotzeko eskubidea. Baina horietako batek uko egin duenez, baztandarrek heldu den urtean Lehen Mailan aritzeko aukera dute. Horretarako, 42.000 euro inguruko aurrekontua estaltzen lagunduko duten babesleak behar ditu eta horien bila ari dira

GAZTETXOENAK, ESKUBALIOAN TREBATUZ Jubenil mailan, txapeldun izateko multzoan ez zuten sartzetik izan Baztango neskek, baina kontuan hartu behar da gehienak kade te mailatik pasatu berriak direla..



Ttikienak, infantil mailako Lekaroz taldeetan ari dira, eskubaloian trebatzen. Pittanaka maila hobetzen ari dira eta gero eta itxura hobe ematen dute.

BKT SENIORRAK: 2. MAILA NAZIONALA

Izaskun ARREGI	ELIZONDO
Izaskun DANBORIENA	AZPILKUETA
M ^a Jose SALABURU	IRURITA
Andrea RODRIGUEZ	ELIZONDO
Amaia IRIGOIEN	ELIZONDO
Itziar IRIGOIEN	ELIZONDO
Enea ARRETxea	ELIZONDO
Itziar PLAZA	IRURITA
Josune ITURZAETA	ELIZONDO
Jaione LARRE	ELIZONDO
M ^a Jose ALEMAN	IRURITA
Miren LATASA	ALKOTZ
Alaitz URRA	LIZARRA
Haizea ERKIZIA	DONEZTEBE
Irati BERRUZO	ATARRABIA
Entrenatzaileak: Joxe ITURZAETA eta Enrique PETRIRENA	



Braulio Iriarte, 16
ELIZONDO
948 581 807
www.antxitonea.com





BKT JUBENILAK

Itziar JAEN MARITORENA	ELIZONDO
Loinaz AZURMENDI GAZTELUMENDI	ELIZONDO
Garazi ARRETXEKA UNANUA	GARTZAIN
Elisa ARRETXEKA URRUTIA	ELIZONDO
Maria GAZTELUPE GARAIKOETXEA	ELIZONDO
Garbiñe GONI ERROTABEREA	ELIZONDO
Ane ALBERRO TRANTXE	ELBETE
Ainara UNANUA ARIZMENDI	GARTZAIN
Saioa JAURENA ATXA	ELIZONDO
Iratxe ARREGI	ELIZONDO
Entrenatzailea: Enrique PETRIRENA	



Baztango Kirol Taldeko jubenilak.

LEKAROS INFANTILAK A

Edurne SOBRINO LOPEZ	ELIZONDO
Idoia MAIA DAGERRE	ELIZONDO
Maita GOIKOETXEA APEZTEGIA	IRURITA
Oihane PRIM AGERREBERE	IRURITA
Garaxi URTASUN ERRO	IRURITA
Miren SOBRINO LOPEZ	ELIZONDO
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORNOZ
Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Ines LABORRA BARRAU	ELIZONDO
Maita LABORRA BARRAU	ELIZONDO
Itxaso ARIZMENDI APEZTEGIA	ORNOZ
Nerea GIL ZIAURRIZ	ELIZONDO
Leticia REKARTE MENDIBURU	ELIZONDO
Maita RODRIGUEZ TELLETXEA	ELIZONDO
Entrenatzaileak:	
Iñaki URIARTE, Maria GAZTELUPE eta Elisa ARRETXEKA	



Lekaroz infantil mailako A taldea.

LEKAROS INFANTILAK B

Maialen ARREGI TORRES	ELIZONDO
Naiara LAZKANO BIKONDOA	ELIZONDO
Itziar ETXEBERRIA OSKARIZ	ELIZONDO
Itziar GOIENETXE AGIRRE	ELIZONDO
Izaskun AIZPURU ETXEBERRIA	ELIZONDO
Itziar SANTOS GARRIES	ELIZONDO
Angela NAGORE SANCHEZ	ELIZONDO
Sonia ITURBIDE BARASOAIN	ELIZONDO
Loinaz JAURENA ARRAZTOA	ARIZKUN
Nerea MORTALENA MASKOTENA	ARRAIOZ
Bidane APEZTEGIA BERHO	ORNOZ-MUGAIRI
Josune BERRO	ORNOZ-MUGAIRI
Entrenatzaileak: Josune ITURZAETA, Ainara UNANUA eta Itziar JAEN	



Lekaroz infantil mailako B taldea.

ESKUBALOIA

Errekako talde nagusiak maila errebotez mantenduko du

Kadete mailako mutikoen Nafarroako Koparen finala galdu zuten San Antonioren kontra

Denboraldi kaxkarra osatu du aurten Doneztebeko Erreka eskubaloia talde nagusiak. Joan den urtean bezalaxe, azken postuetan hasi zen. Baina joan den urtean, bigarren itzuli polita egin eta arazorik gabe mantendu zuen maila. Aurten, ordea, txarretik okerrera joan da taldea. Talde indartsuen kontra partidu politak egiten bazituen ere, teoriarik berdinak edo txarragoak ziren taldeekin galtzen zuten. Honela, jautsiera postuan akitu zuen denboraldia. Baina aurten suertea la-

gun izan du Errekak eta errebotet bati esker maila mantendu duela erraten ahal da: Beti Onak klubak bi talde ditu bat Lehen Mailan eta bertzea Bigarren Mailan, Errekarekin. Lehen Mailakoak kategorian galdu duenez, bigarren mailakoak ere jautsi egin behar du nahitaez eta honek utziko duen lekua beteko du Errekak. Dena den, heldu den urteari begira lana gogotik egin beharko du Doneztebeko taldeak, aurtengo berriz ere ez errepikatzeko.

Harrobiari dagokio-



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

Aurtengoan gaizki hasi eta gaizki akitu du denboraldia Errekako talde nagusiak. Jautsiera postuetan akitu zuen, baina errebotez bada ere, bigarren mailan segituko du heldu den urtean.

nez, kadete mailako mutikoen arras bertzelako itxura eman dute. Liga polita egin dute eta lehendabiziko faseko helburua lortu zuten, bi lehendabizikoen artean sailkatu eta txapelduen liga jokatzera, alegia. Hemen ere bikain aritu dira, eta kopako finalera ailegatu dira. San Antonioren kontra galdu zuten, baina denboraldi ederra osatu dute. Horren erakusgarri, liga eta koparen arteko asteetan jokatu behar diren lagun arteko partidetan eskuratu dituzten emaitzak. Errate baterako, Eus-

ERREKA SENIOR 2. MAILA NAZIONALA

Pablo ELIZONDO	DONEZTEBE
Axier MUTUBERRIA	DONEZTEBE
Juan TELLETXEA	DONEZTEBE
Eduardo ALMANDOZ	DONEZTEBE
Daniel URROZ	GAZTELU
Jexux IRIGOIEN	DONEZTEBE
Iban EZKURRA	DONAMARIA
Mikel BERTIZ	DONEZTEBE
Jokin APEZTEKIA	DONEZTEBE
Karmelo REKARTE	DONEZTEBE
Joseba LEGARRA	DONEZTEBE
Xabier BANARES	DONEZTEBE
Gorka BIDEKAIN	DONEZTEBE
Alfredo ELORZA	DONAMARIA
Javierxo ALMANDOZ	DONEZTEBE
Mikel ALTZUGUREN	ELIZONDO
Josu URREAGA	DONEZTEBE

Entrenatzaileak: Karmelo REKARTE eta Xixo LARRAZA

Delegatuak:

Iñigo JUANENEA ETXEBERRIA
Maria INBULUZKETA

APEZTEGIA BERRIA

BURDINDEGIA

Baratzetako behar dituzun erreminta guztiak

Elizagibela, 1 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 994





ERREKA KADETE MUTIKOAK

Niko MINDEGIA ELIZAGA	DONEZTEBE
Peio MITXEO TELLETXEA	GAZTELU
Fermin DEL VILLAR PEGUERO	NARBARTE
Pascual BERTIZ BALEZTENA	DONEZTEBE
Jon SAGASETA BARANGUAN	DONAMARIA
Xabier BABAZE BULDAIN	URROTZ
Xabier GAMIO LIZASOIAN	GAZTELU
Sergio BLANCO PRIMO	DONEZTEBE
Javier DEL VILLAR PEGUERO	NARBARTE
Iñaki INDABERE	LEGASA
Ibai ETXART	LEGASA
Julen GRAJIRENA	LEGASA
Jon JAUNKIKOA	NARBARTE
Ibai MEOKI	DONEZTEBE

Entrenatzailea: Txomin Mindegia

ERREKA KADETE NESKAK

Olatz JUANENA	DONEZTEBE
Jaione ORDOKI	DONEZTEBE
Maidier MINDEGIA	DONEZTEBE
Garbiñe MIGELTORENA	DONEZTEBE
Virginia FERNANDEZ	DONEZTEBE
Cristina ZABALA	DONEZTEBE
Cristina MINDEGIA	DONAMARIA
Ainhoa BLAS	DONEZTEBE

Entrenatzailea: Maidier IRAZOKI eta Xabier BANARES



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Erreka eskubaloitako taldeko mutiko kadeteak kopako finalean aritu ziren.



Erreka eskubaloitako taldeko neska kadeteak jokalariz eskas ibili dira.

kadiko Ohorezko Mailan aritzen den Irungo Bidasoa taldeari irabazi egin zioten, baita Oretako Ereintza taldeari ere. Talde honek egin duen denboraldi eta jokalarien maila onaren seinale, heldu den urterako Niko Mindegia doneztebarra Iruñeko San Antonio taldean arituko dela. Baziren urte

batzuk Doneztebeko jokalariek ez zutela hiriburuko taldeetan jokatzen eta honek, gazteen mailan lan ederra egiten ari dela erakusten du.

Kadete mailako neskek gorabehera gehiago izan dituzte. Jokalari gutti izan dute eta liogan aritu ondotik, kopan ere parte hartu zuten.



La Baztanesa, S.A.

AUTOBUS ENPRESA

Eguneroko eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago 25, Tfnoa: 948 580 129 • ELIZONDO

ERRUGBIA

Baztango errugbi taldea Nafarroako ligan txapeldun

Heldu den urtean Lehendabiziko Maila Nazionalen jokatu du

Baztango errugbi taldeanagusi izan da aurtenean Nafarroako ligan. Berdinketa bat alboratu utzita, gainerako partida guztiak irabazi ditu. Gan den urtean ere ligako txapeldun izan zen, partida guztiak irabazita. Beraz, maila honetan arerorik ez duela erakutsi du bi urteotan, kategoria txikiak gelditzen zaiola, alegia.

Halere, gan den urtean ez zuen mailaz igariteko aukerarik izan, gazte mailako talderik ez zuelako. Aurtenean, baldintza hori bete dute, lehen aldiz jubenil maila-

ko taldea zelairatuz. Denen, aurtenean ez dute baldintza hori betetzea eskatzen lehen maila nazionalera igotzeko. Horrela, igoera fasea jokatuz beharrik gabeko mailaz igotzeko dira Baztango errugbilariak eta Lehendabiziko Maila Nazionalen jokatu dute hurrengo denboraldian. Hor arerio gogorragoak izanen dituzte, baina itxura txukuna ematea espero dute.

GAZTEAK
KONTZENTRAZIOETAN
AURTENEAN

Erran bezala, aurtenean



ARGAZKIAK: TOTU
Nafarroako ligan jaun eta jabe izan da Baztango errugbi taldea. Aurtenean, lehen aldiz gazte mailakoak ere trebatzen hasiak dira errugbian eta heldu den urtean ligan jokatu dute.

lehen aldiz jubenil mailako taldea ateratu da. Ligarik ez da egin maila honetan, baina talde ezberdinek kontzentrazioak egin dituzte leku ezberdinetan, jokatu, trebatzen eta elkar eza gutzen hasteko. Heldu den urtean bai, ligan ari tuko dira errugbilari gazteak ere eta orduan hasiko da Baztango harrobiaren lana zelai gainean nabarmentzen.

BAZTANGO ERRUGBI TALDE NAGUSIA

Unai ABANZABALEGI BASKARAN	IRUÑA
Manex AIZPURU IRIBARREN	ORNOZ-MUGAIRI
Patxi ALMANDOZ IRIGOIEN	LEKAROZ
Iniigo ARREGI JAURENA	ELIZONDO
Josetxo BARBERENA IRAIZOZ	IRAIZOTZ
Iniigo BARBERENA IRAIZOZ	IRAIZOTZ
Mikel BARRENETXE IRIGOIEN	ELIZONDO
Iniigo BENGOTXEA MARTINEZ	IRUÑA
Ruben BEUNZA ERIZE	OSTITZ
Julio CALLEJA RODRIGUEZ	IRUÑA
Inko ELGEZUA FERNANDEZ	ARIZKUN
Iniigo EZKURRA OSAKAR	URRIZOLA-GALAIN
Pedro EZKURRA OSAKAR	URRIZOLA-GALAIN
Jon FRANZESENA ZUBILLAGA «Kazka»	ELIZONDO
Jon IDOATE IRIGOIEN	LEKAROZ
Jose Miguel IRIBARREN IRIGOIEN	ELIZONDO
Mariano IRIBARREN IRIGOIEN	ELIZONDO
Asier IZARRA NAVARRO	IRUÑA
Peio Xalbat JUANTORENA	BAIGORRI
Gabriel JUBERA VILLEGAS	OSTIZ
Oscar LAMERINAS KARRIKIRI	LEKAROZ
Arturo LANDA MANSOA	IRUÑA
Pablo MARITXALAR ETXENIKE	SUNBILLA
Angel MUNARRIZ SAGASETA	ORNOZ-MUGAIRI
Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA	ANOZIBAR
Pello OBREGOZO ISTILART	IRURITA
Koldo OTEIZA ZUBIETA	ATARRABIA
Juan Angel PEROTXENA URANGA	ELIZONDO
Diego SANTERVA USTARROZ	ORNOZ-MUGAIRI
Miguel Mari URRUTIA ARIZTIA	ARIZKUN
Oskar VILLABONA CENOZ	LATASA-ODIETA

BAZTANGO ERRUGBI TALDEA (JUBENILAK)

Javier DEL CASTILLO	ELIZONDO
Jon ETXENIKE	IRURITA
Gil GOIENETXE	ELIZONDO
Manex GOIENETXE	ELIZONDO
Karlos GOIKOETXEA	IRURITA
Joze HUARTE	AMAIUR
Joseba HUARTE	ELIZONDO
Iniigo IRIARTE	AMAIUR
Iniigo IRIBARREN	ELIZONDO
Eneko JAURENA	ELIZONDO
Jose Antonio MARITORENA	GARTZAIN
Haritz MEOKI	DONEZTEBE
Iniigo MIHURA	ARRAIOZ
Urki MUNARRIZ	ELIZONDO
Sergio NAVARRO	ARRAIOZ
Patxi OBREGOZO	IRURITA
Gorka OTEIZA RAZKIN	ORNOZ-MUGAIRI
Jon SANSINENA	ELIZONDO
Jose Ramon SARASOLA	ELIZONDO





FUTBOLA

Leitzako Aurrerak Preferente maila galdu du

Azkeneko postuan gelditu ondotik, Erregionaleko lehen mailan arituko da hurrengo denboraldian

Denboraldi hasieran gehiago espero bazuten ere, Preferenteko azken postuan gelditu da denboraldi honetan Leitzako Aurrera futbol talde nagusia eta heldu den urtean Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko du. Ongi hasi zuten denboraldia, lehenbiziko hamar postuetan eta ongi jokatuz. Baina gero sistema eta jarrera aldatu, dena hantaz gora jarri zen eta soluzio itxurarik gabe. Zortzi partiduren faltan Iruñeko Fernando Muñoz entrenatzailea bidali eta Josu Zestau leitzarrak hartu zuen ardua. Hobetze itxura eman zuen taldeak eta arerio zuzenek huts egiten hasi zirenez, maila eusteko itxaropena piztu zen. Baina azkenekoan, lesioak zirela, suertete txarra zela eta urduritasuna medio, partidu

erabakigarrietan huts egin dute. Taldearen gaztetasunak ere izan dezake zeresanik horretan. 38 partiduetatik 7 bakarrik irabazi ditu taldeak, beste 7 berdindu eta gainerako guztiak galdu.

Azken bi denboraldietan ere jautsiera postuetan gelditu dira lei-

tzarrak, baina arrazoi ezberdinengatik maila mantendu dute. Aurten ez dirudi halakorik suertatuko denik. Dena den, Josu Zestau entrenatzaileak dioenez, «*infernua urte bat egin ondotik, seguru heldu den urtean berriz ere igoko garela!*». Animoa ez zaie falta behintzat.

AURRERA FUTBOL TALDEA: PREFERENTE

Iker BENGOTXEA PERURENA	LEITZA
Garikoitz ETXEGARAI MIGELTORENA	LEITZA
Josu URKIOLA OLANO	LEITZA
Antton ABRUZA PEREZ	LEITZA
Ibai ELIZALDE ESKUDERO	LEITZA
Ivan URTIAGA MUNARRIZ	IRUÑEA
Mikel AZPIROZ HERNANDORENA	LEITZA
Unai SAGASTIBELTZA IREGI	LEITZA
Joseba SAGASTIBELTZA BALEZTENA	LEITZA
Eneko BARBERIA VILLABONA	LEITZA
Eneko ANDUEZA ARAMENDIA	LEITZA
Jon ARANGOYA ABADIA	LEITZA
Igor BENGOTXEA PERURENA	LEITZA
Jose Antonio JIMENEZ KANFLANKA	LEITZA
Iñigo de CARLOS LAZKANO	LEITZA
Arkaitz BENGOTXEA BERASATEGI	LEITZA
Antxon GOMEZ SOLA	LEITZA
Mikel BARBERIA VILLABONA	LEITZA
Javier URTIAGA MUNARRIZ	IRUÑA
Juan Francisco URKIOLA ETXEGIA	LEITZA
Eneko GOROSTIAGA GONI	EZKURRA
Iñaki ZABALO BETELU	LEITZA
Unai OLANO	
Iker AIZAGIRRE	
Entrenatzailea: Fernando MUÑOZ LOPEZ (azken 8 partiduak arte) eta Josu ZESTAU ETXEBERRIA. Juan Carlosek ere asko lagundu du.	



Aurrera taldeak Nafarroako Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko du hurrengo denboraldian.



BIZIKLETEN salmenta eta konponketa

Kanttonberri, 1 • BERA
Tfnoa: 948 63 12 18



FUTBOLA

Baztanek ez du lortu igoera postuetan sartzea

Jubenilek igoera eta txapelketa lortu dute, kadeteak ongi ibili dira eta infantilak zelairatu dira

Nafarroako Erregionaleko lehen mailan ilusio handiz hasi zen Baztan futbol talde nagusia, egitura berriarekin igotzeko aukera gehiago baitzegoen. Baina denboraldi erdi aldera jokalaria batzuk taldea utzi zuten arrazoi ezberdinengatik. Gerotik, taldea labur antzean gelditu zen eta gainera lesio luzeak ere izan zituzten. Entrenatzeko baldintzak ere ez dira egokienak izan eta auniztan San Francisco Javier ikastetxeko frontonean entrenatu behar izan dute, Gil-

txaurdi futbol zelaia ez zegoelako egoera onean. Ligan hamargarren postuan akitu zuten eta Federazio Koparen bitartez ere ez zuten igoerarik lortu. Heldu den denboraldirako, halere talde gazte eta ona geldituko da.

Jubenilek eman dute aurten pozik haundiena. Ligan beraien multzoko lehendabizikoak gelditu dira eta lehen mailara igotzeko fasea jokatu dute. Hemen ere lehenbizikoak izan dira eta igoera lortu dute. Heldu den urteari begira, adinarengatik guti



ARGAZKIA: AITOR

Baztan futbol taldeak jездu suerterik izan aurten lesioekin.

pasatzen dira eta taldea bere horretan mantenduko da.

Kadeteak ere ongi aritu dira, denboraldiaren zati haundi batean lehen postuan izan baitira. Azkenean laugarren izan ziren ligan eta kopan final laurdenetan kanporatu zituzten.

Infantil mailan ere lehen aldiz futbol taldea zelairatu du Baztanek. Bigarren itzuli ederra egin dute eta laugarren akautu dute ligan. Aretto-futbolearen ere Nafarroako Kirol Jolasetan parte hartu dute, futbol handirako trebatzen.

BAZTAN F.T.: ERREGIONALEKO 1. MAILA

Michel ARRAZTOA BRUST	IRURITA
Josu ARTETA MITXELENA	ELIZONDO
Patxi BARBERENA IBARRA	ZIGA
Miguel BIDEKAIN DAMBORIENA	IRUÑA
Eduardo CALVO IRIBARREN	ELIZONDO
Eneko ESCUDERO AMIANO	ELIZONDO
Josetxo ETXEBERRIA ITURBIDE	ARIZKUN
Guillermo ETXENIKE INARREA	IRURITA
Mitzel ETXENIKE MARITORENA	IRURITA
Txema GARAIKOETXEA ITURRIRIA	LEKAROS
Iñaki GOIENETXE GONI	ELIZONDO
Xabier IRIGOIEN ELIZETXE	ELIZONDO
Jose Martin LEGARREA TORRES	ELIZONDO
Juan Mari LEGARREA TORRES	ELIZONDO
Alex MARTIN TORRES	ELIZONDO
Jose Manuel OSAKAR ITURRIA	ELIZONDO
Imanol OTERO LANDA	ELIZONDO
Jose Manuel ROMERO BARINGO	VALENTZIA
Koldo RUIZ MIHURA	ELIZONDO
Iñigo RUIZ DE LARRINAGA IDOATE	ELIZONDO
Guillermo SANTOS CARBALLO	IRUÑA
Iñaki TELLETXE ZALDAIN	ELIZONDO
Pello URRUTIA BARBERENA	IRURITA
Martin ZENOZ JIMENEZ	ZIGA
Entrenatzailea: Javier AMIANO MARIÑELARENA	ELIZONDO
Ordezkarria: Juan BARRENETXE IRIGOIEN	ELIZONDO

IPARLA kirolak

Mendiko materiala
Kirol oinetakoak
Txandalak



Santiago, 51 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 585



BAZTAN F.T. JUBENILAK 2. MAILA

Juan Antonio AGERREA IRIBARREN	ELIZONDO
Xabier AMEZTOI ETXENIKE	ELIZONDO
Borja ARRAZTOA GOMEZ	IRURITA
Javier ARREGI JAURENA	ELIZONDO
Xabier BARBERENA URROZ	IRURITA
Xabier BENGOTEXEA APEZTEGIA	ARRAIOZ
Endika EUGI GONI	ELIZONDO
Ander ETXENIKE MARITORENA	ELIZONDO
Gabriel GARMENDIA MARITORENA	AMAIUR
Xabier GOMEZ GARMENDIA	DONOSTIA
Xabier GONI ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Ariz GONI MAIA	ORONOZ-MUGAIRI
Unai JAUREGI REKALDE	AMAIUR
Mikel LARREGI GONI	ELIZONDO
Juan Mari MAIA ETXEBERRIA	ELIZONDO
Alejandro MOTA PEGUERO	NARBARTE
Urki MUNARRIZ GARCIA	ELIZONDO
Miguel Jose PLAZA ETXENIKE	IRURITA
Ivan SAN JOSE AMIANO	ELIZONDO
Mikel SANTESTEBAN RIPA	ELIZONDO
Jokin URTIZBEREA GONI	LEKAROZ
Rafael ZENOZ JIMENEZ	ZIGA
Entrenatzailea: Fernando ARRAZTOA LARREGI	GARTZAIN
Ordezkarria: Victor SAN JOSE KALPARSORO	ELIZONDO



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztango jubenilen futbol taldeak igoera lortzeaz gain, txapelketa ere irabazi du.

BAZTAN F.T. KADETEAK 1. MAILA

Xabier ALDAKO ARRETKEA	ELIZONDO
Zuhaitz AZURMENDI GAZTELUMENDI	ELIZONDO
Juan DEL CASTILLO ARRETKEA	ELIZONDO
Fermin ELIZEGI URRUTIA	ELIZONDO
Ioritz ERHET LARRAZ	LEITZA
Imanol GAMIO IRUNGARAI	
Adrian GARMENDIA MUÑOZ	ELIZONDO
Imanol GONI ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Josu GONI ONSALO	DONAPALEU
Santiago IANTZI IRUNGARAI	ELIZONDO
Mikel IRIARTE SARRATEA	AMAIUR
Xabier IRURETA TRANCHE	ELIZONDO
Jorge ITURRIRIA EGURROLA	ELIZONDO
Borja JAIMERENA AZKARRAGA	ELIZONDO
Kristians Francisco JUANBELTZ MALLARINI	GANELONES
Tomas LABORRA BARRAU	ELIZONDO
Asier LIZARZA ESPARZA	ARIZKUN
Julen LIZARZA ESPARZA	ARIZKUN
Denis LIZASOAIN ORTEGA	ELIZONDO
Jorge MERAYO AMAYA	ELIZONDO
Iñigo MORENO MARTINEZ	ELIZONDO
Gaizka OTXANDORENA BIKONDOA	ELIZONDO
Iker PLAZA MARTINEZ	LEKAROZ
Jose Mari SALABURU MATXIÑENA	IRURITA
Agustín SANSIÑENA IRIBARREN	ELIZONDO
Entrenatzailea: Jose Manuel OSAKAR eta Javier MAIA	



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Baztango kadeteen futbol taldea lehendabizikoa izan zen Nafarroako Kirol Jolasetan. Txapelketarako ligaxkan erdialdean sailkatu da.

MUGAIRE iturgintza

Iturgintza, Kalefakzioa, eta gasa

FUTBOLA

Lesakako Beti Gazteko talde nagusiak Preferente mailari doi-doi eutsi dio

Aurrendenboraldian Jon Irazoki Memoriala irabazi zuen

Hasieratik espero bezala lana gogotik egin behar izan du Beti Gazteko talde nagusiak Gipuzkoako Preferente mailari eusteko. Iaz lortu zuen igoera eta aurreten jokalariek gazteak sartu dira taldean, baita jubenilak ere. Aurrendenboraldian, Jon Irazoki Memoriala irabaztea lortu zuten. Ligan, lehen itzuli gorabeheratsua egin zuten. Azken postuan hasi ziren, baina zazpigarrenak ere izan ziren. Lehen itzulia akautzean, ordea, jautsiera postuan sartuak zeuden lesakarrak. Bigarren itzulian ere gorabehera dexente izan dituzte. Lau partidu falta zituztela jautsiera postuetan murgilduak zeuden, baina lau partida horietatik hiru etxean zituzten. Lehendabizikiak etxean irabazi zituztieten Real Union eta igoera jokoan zuen Be-



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Beti Gazteko talde nagusiak lana gogotik egin behar izan du Preferente mailari eusteko.

rriori. Hurrengoan, kanpoan Trintxerperen kontra berdinduta eta gibelatik zituen taldeek huts egin ondotik, matematikoki maila mantentzea lortu zuten. Dena den, azken partida ez zen tramite hutsa izan, hirugarren mailara igotzea jokatzen zuen Elgoibar

izan baitzen Lesakan. Denboraldiko sarrerarik onena izan zen Mastetik (lau autobus eta hainbat auto etorri ziren), Elgoibarrek garaipea eta igoera lortu zuen eta etxekoena izan ez bazen ere, besta bizitu zen. Beti Gazte 14. izan da azkenean.

Jubeniletan, denboraldi polita osatu dute Gipuzkoako lehen mailan. Lehen itzulian, batez ere, ongi ibili dira gazteak eta gol besta ederrak eskaini dituzte. Laugarren postuan ere izan ziren, baina bigarren itzulian zertxobait beheiti egin dute eta zor-

tzigarren postuan akautu dute, jausteko inolako arazorik gabe.

Kadeteak ongi ibili dira Gipuzkoako lehen mailan, iaz igo ondotik. Kategoria berrira ongi egokitu dira eta kasik denboraldi osoa sei lehenbiziko postuetan egin ondotik, zazpigarren izan dira azkenik.

Infantilek denboraldi bikaina egin dute Nafarroako lehen mailan. Beraien multzoan lehendabizikoak izan dira, kasik partida guztiak irabazita. Txapeldunen liga talde haundiak izan dituzte arerio (Osasuna bertzeak bertze) eta garaien gutti eskuratu dituzte, baina horrek ez du beraien urte ederra goibeltzen.

Nesken taldeak garaienak eskuratu ditu poliki-poliki. Ligan azken aurrekoa izan zen, baina kopan laugarrena, zortziko multzoan.



ETXARTE eraikuntza enpresa

- ❖ *Lur mugimendua*
- ❖ *Saneamenduak*
- ❖ *Urbanizazioak*
- ❖ *Nabe industrialak*
- ❖ *Ormigoiak eta etxebizitzak*
- ❖ *Teilatuak-Fatxadak eta pinturak*



BETI GAZTE (GIPUZKOAKO PREFERENTE)

Fernando SUSPERREGI BERGARA	LESAKA
Eduardo BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Joseba TELLETXEA ZAMORA	LESAKA
Gotzon Mirena ARENAS SALAZAR	ARANTZA
Jabier LARRUI LARRANAGA	ETXALAR
Eneko FERNANDEZ MARITXALAR	LESAKA
Josu ALMANDOZ MARITXALAR	LESAKA
Jon TELLETXEA ZOZAJA	LESAKA
Xabier TXOPERENA ERRANDONEA	LESAKA
Iñaki ZUDAIRE AJONA	LESAKA
Joseba JUANENA PETRIRENA	DONEZTEBE
Fernando IRAZOKI ANT XORDOKI	LESAKA
Imanol ALMANDOZ UBIRIA	LESAKA
Unai ETXEPARE ELIZEGI	LESAKA
Iñigo RODRIGUEZ LARRETXE	LESAKA
Felix IRAZOKI ZOZAJA	LESAKA
Mikel IRIGOIEN IRIGOIEN	LESAKA
Asier HERNANDORENA LIZASO	LEGASA
Beñat MAIA ARAKUES	LESAKA
Iñigo TELLETXEA ETXEBERRIA	IGANTZI
Andoni LARRALDE ETXARTE	LESAKA
Mikel IRIARTE PIKABEA	LESAKA
Entrenatzailea: Joxe Mari ERKIZIA	



Beti Gazteko gazte mailako futbol taldeak denboraldi polita osatu du.

BETI GAZTE: JUBENILAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA)

Unai BERAU	ITUREN
Hodei BEGINO	DONEZTEBE
Pello ETXEBESTE	LESAKA
Urtzi TELLETXEA	LESAKA
Áritz BALEZTENA	DONEZTEBE
Iban SANTESTEBAN	DONEZTEBE
Jon APEZTEGIA	DONEZTEBE
Beñat SARALEGI ALTZATE	LESAKA
Joanes IRIGOIEN	ETXALAR
Xabi GONZALEZ VAHL	LESAKA
Martin GONZALEZ VAHL	LESAKA
Andoni BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Iker IRAZOKI	DONEZTEBE
Joseba PIKABEA BALEZTENA	LESAKA
Beñat IRAZOKI ALTZUGUREN	ETXALAR
Ibai MUJKA MAIA	BERA
Ion OLAIZOLA ETXEGARAI	LESAKA
Eneko MITXELENA ETXEBERRIA	IGANTZI
Xabier FAGOAGA MAIA	LESAKA
Entrenatzaileak: Endika MENDEGIA eta Igor ROMANO	



Beti Gazteko kadete mailako taldea ongi moldatu da lehen mailan.

BETI GAZTE: KADETEAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA)

Andoni MITXELENA DANBORIENA	ARANTZA
Ibai MARIEZKURRENA SAGASETA	DONEZTEBE
Imanol AROZAMENA ETXEGARAI	LESAKA
Ion OTXOTOKO ABUIN	LESAKA
Gaizka GALLARDON ALTZUGARAI	ETXALAR
Ibai ORDAX OLABE	DONEZTEBE
Xabier MARITXALAR ERRANDONEA	LESAKA
Áritz TELLO LOIGORRI	LESAKA
Ladis SATRUSTEGI ALTZUGARAI	LESAKA
Mikel TELLETXEA GONZALEZ	DONEZTEBE
Aitor BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Iñigo ALTZUGARAI LEGAZKUE	LESAKA
Pablo TABERNA ESTONBA	LESAKA
Ibai BERAU ZAPIRAIN	LESAKA
Ladis CABALLERO LANZ	LESAKA
Markel SUAREZ ANT XORDOKI	LESAKA
Ander MAIA ARAKUES	LESAKA
Oier IANTZI ORDOKI	LESAKA
Iban LOPEZ CLEMENTE	DONEZTEBE
Nauel OMAR SEAGLIA	BERA
Julen MAIA ANT XORENA	ETXALAR
Josu LARRETXE LARRALDE	ARANTZA
Aitor BENGOTXE OLAETXE	LESAKA
Entrenatzaileak: Koldo ERKIZIA eta Mikel OIARTZABAL	



Beti Gazteko neskak: Irati Mitxelena Tolosa (Etxalar), Izaskun Zubieta Albis-tur (Bera), Nagore Indakoetxea Leiza, Lorea Flores Compains, Aitziber Zabaleta Irazoki (Bera), Garazi Mitxelena Tolosa (Etxalar), Goretti Etxegarai Lopez, Miren Mitxelena Etxeberria (Igantzi) Jone Zelaiaeta Lazkano (Bera), Ainhoa Re-tegi Errandonea (Bera), Miren Zudaire Ajona, Irantzu Etxebeste Iantzi (Bera), Aina Flores Compains, Estixu Elgorriaga Almandoz, Isabel Etxebeste Zayas, Amaia Eneverreaga Etxegia eta Maitane Erdozain Ibarrek (Bera) osatu du-te taldea. Entrenatzailea: Juana Aleman. Ordezkarria: Jesus M^a Torres.

FUTBOLA

Berako Gure Txokoa taldeari promozioan ihes egin zion Preferenterako igoerak

Azken postuan akautu du denboraldia, lesioekin suerte txarra izan ondotik

Gure Txokoako futbol talde nagusiak denboraldi polita osatu du Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan. Iaz Preferentetik jautsi ondotik, taldea dexente gaztetu zen eta Ganix Zubieta hasi zen entrenatzaile lanean. Hasieran horrelako helbururik ez bazuten ere, liga Gure Txokoa eta Oiarzunen artean izanzen zela ikusi zen abudo. Lehenbiziko jardunaldietan beratarrak izan ziren aitzinetik, baina abudo oiartzuarrak gailentzen hasi ziren. Elkarren kontra Matzadan jokatutako partida Gure Txokoak irabazi zuen, lehen postura hurbilduz. Baina garaipen horren ondotik, ttantaka-ttantaka puntuek ihes egin zieten beratarrei. Honela, ligako azken txanpan sartuak nahiko nabarmen aitzinetik ziren Oiarzun lehen postuan



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Berako Gure Txokoako futbol talde nagusia bigarren izan zen ligan eta promozioan eskura izan zuen igoera. Gol baten faltan gelditu ziren berriz ere Preferentera itzultzeko.

eta Gure Txokoa bigarrenen, eta horrelaxe akautu zen liga. Gauzak honela, Preferentera igotzeko bertze multzoan bigarren izan zen Oriokoren kontra jokatutako behar zuen Gure Txokoak. Joaneko partidaren Orion 4-1 galdu zuen Gure Txokoak eta gauzak zail jarri zitzaizkion

itzuliko partidarako. Maiatzaren 29an jokatutako partida hori eta Gure Txokoak 2-0 irabazi zuen. Hirugarren golarekin igoera eskura izan bazuten ere, ez zuten gauzatu eta atean gelditu ziren beratarrak. Beraz, ez da Bortzirietako derbirik izan heldu den urtean.

Jubenilen taldeari dagokionez, Gipuzkoako lehen mailan aritu da eta denboraldi kaxkarra osatu du. Hasiera-hasieratik azken postuan sartu ziren eta liga osoan ez dute hiru partida bertzerik irabazi, tartean gol sorta ikaragarriak jasoz (20-0 eta 18-0). Heldu den urtean biga-

rren mailan jokatu beharko dute

Kadeteek, Gipuzkoako bigarren mailan, lehen fasean dexente ongi moldatu ziren, baina ez zuten igoera faserako sailkatzerik lortu. Honela, Kopan parte hartu dute eta bertan final laurdenetara ailegatzea lortu zuten. Penaltietan galdu eta ezin izan zuten finalerdietan sartu.

Infantiletan, joan den urtean Nafarroako ligan aritu ondotik aurten Gipuzkoakoan aritu dira. Kadeteek bezalaxe ez zuten igoera faserako sailkatzea lortu eta kopan aritu dira.

Dena den Gure Txokoako futbol sailarentzat berririk txarrena emakumeen taldearen desagerpena izan da. Azken hamarkadan Gipuzkoko eta maila nazionalerako txapeldun izan da, baina aurten ez da Beran zelairatu.

asesoria • aholkularitza

Rafa Ponbar

Tel: 948 63 02 01 • Fax: 948 63 02 55 • e-posta: asesoria@ugaldea.com
Bidasoa 41 • BERA



GURE TXOKOA ERREGIONALEKO LEHEN MAILA

Xabi GARMENDIA IRIZAR	BERA
Mikel ALTZURI ASTONDOA	BERA
Imanol OIARTZABAL URANGA	BERA
Joseba PETRIRENA ANSALAS	BERA
Asier IRAZOKI ZUBIETA	BERA
Angeltxo ARANIBAR ALMANDOZ	BERA
Mikel LARRETXEKA ERRANDONEA	BERA
Iñigo LASAGA ARBURUA	BERA
Andoni LARRANAGA ALBERDI	BERA
Igor LASAGA TELLETXEKA	BERA
Jose Ignacio LASAGA ARBURUA	BERA
Iñaki IRAZOKI OHARRIZ	BERA
Asier LARRAÑAGA ALBERDI	BERA
Carlos PONBAR SAINZ	BERA
Iñigo ALTZUGUREN ARNIS	BERA
Ander ALTZURI ASTONDOA	BERA
Gorka FEITO BERGARA	LESAKA
Alain MORCILLO ARTIEDA	BERA
Txomin ELGORRIAGA ASTONDOA	BERA
Eduardo ETXEBESTE IGANTZI	BERA
Aitor IRAZOKI GELBENZU	BERA
Jon MIKEL MATXIARENA ALDALUR	BERA
Unai LARRETXEKA MATXINENA	BERA
Adrian ORDOKI IRAZOKI	BERA
Julen PIKABEA GOÑI	BERA
Entrenatzailea: Ganix ZUBIETA RODRIGUEZ	
Masajista: Amaia GARCIA • Ordezkarria: Luis IRAZOKI ETXEGARAI	



Gure Txokoako jubenilek denboraldi kaxkarra egin dute eta bigarren mailara jautsi dira, azken postuan gelditu ondotik. Berrehun ! gol baino gehiago jaso dituzte.

GURE TXOKOA JUBENILAK: GIPUZKOAKO 1. MAILA

Xabi ALTZURI ASTONDOA
Josu IGOA ERRANDONEA
Jon ERRANDONEA ETXEBERRIA
Igor TXOPERENA ALDALUR
Aitzol IRIZAR ARIZTIA
Aritz ARBELAITZ IGOS
Iñaki ESCUDERO OLAZIREGI
Xabi BARRUTIA ELIZALDE
Eneko AGIRRE ARRIETA
Patxi PUYADENA ERRANDONEA
Markel ETXEBESTE IGANTZI
Gwendal LARQUE SANJURJO
Ruben PEÑA SANCHO
Asier LAZKANO MITXELENA
Xiker KORTARI GOIKOETXEKA
Eneko TELLETXEKA ARBURUA
Iosu TOMASENA LOSADA
Ander EZEIZA BERGARA
Ugaitz ADO PRIETO
Entrenatzailea: Patxi RODRIGUEZ LOPEZ

GURE TXOKOA KADETEAK: GIPUZKOAKO 2. MAILA

Julen JIMENEZ ANDRES
Iker PUYADENA ERRANDONEA
Jon Esteben AGARA SILVA
Aitor IGANTZI GOIENETXE
Beñat IRAZOKI ISASI
Jon ERRANDONEA MARTIN
Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO
Imanol GALDERON AGIRRE
Iñigo JAUREGI ERRANDONEA
Jokin IGANTZI IRIGOIEN
Ruben ZAPIRAIN GONZALEZ
Beñat ITURRIA CUARTERO
Jon IRAZOKI ZELAIETA
Iñigo ERKIZIA IRAZOKI
Entrenatzaileak: Angel POMBAR eta Oskar URKIOLA



Gure Txokoako kadeteak ez zuten igoera faserako sailkatzerik lortu, baina kopan final laurdenetaraino ailegatu ziren.



EMBALAJES M. MARTINEZ

- Kaja, kaiola eta paletak
- Teilatuetako egiturak haritz eta pinuzkoak

Zalain industrialdea • BERA
Tfnoa: 948 63 07 02 • 948 63 14 46
Faxa: 948 63 06 66

ARETO-FUTBOLA

Gure Txokoako areto-futbol taldeak behetik goiti egin du denboraldian

Lehen itzuli gorabeheratsua eta gero igoeratik gertu gelditu zen

Joan den denboraldiaren alderantzizkoa egin du aurten Gure Txokoako areto-futbol taldeak Gipuzkoako lehen mailan. Orduan, lehen postuetan egin zuen lehen itzulia, baina bigarrenen jautsiera postuetan sartu ziren, nahiz eta azkenean maila eustea lortu. Aurten, lehen itzuli arrunta egin zuten, gorabeheratsua. Baina bigarrenen, sailkapenaren erdialdean izatetik, goitiko postuetara begiratzera pasatu da.

Bigarren itzuli honetan partida bakarra galdu dute eta etxetik kanpo, batez ere, erakustaldi ederrak eskaini zituzten. Etxean gehiago kosta zitzaion irabaztea, baina nola edo hala aitzinera atera dituzte partidak. Partida bakarra etxean galdu zuten, Plaza Berri Sport liderraren kontra. Honela, igoerako bi lehendabiziko postuetara hurbiltzen joan dira poliki-poliki. Ligako azken partidaren, hirugarren postua jokuan izan



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Gure Txokoako areto-futbol taldea igoeratik hiru puntura eta gol bakar batera gelditu da azkenean.

zuten Makax taldearekin. Azkenean hiruna berdindu zuten eta Gure Txokoako laugarren izan zen, baina garaipena lortu izanaren balu hirugarren postua eskuratuko luke. Gainera, gerora jakin dutenez, bi lehendabizikoetatik batek uko egingen dio mailaz igozteari eta honenbertzez hirugarrenen ere mailaz igozteko aukera izan

GURE TXOKOAKO ARETO-FUTBOL TALDEA

Jon ALTZUGUREN ERRANDONEA	BERA
Andoni LASAGA APEZTEGIA	BERA
Sabino GOMEZ RODRIGUEZ	BERA
Sergio JABALERA UBRIC	BERA
Jabier JABALERA UBRIC	DONEZTEBE
Aritz PEREZ ARTIEDA	BERA
Itzi ZELAIETA ERASUN	BERA
Patxi ARTIEDA APEZTEGIA	BERA
Itzi ENDARA PETRIRENA	BERA
Jabier IRIARTE SANSINENA	ETXALAR
Asier CRIADO DEL PUERTO	BERA
Jokin RICO LOPEZ «ZIZU»	BERA
Mikel JAURENA DANBORIENA	BERA
Jose Luis TAPIA IGUZKIAGIRRE	BERA
Xabi TAPIA EZEIZA	BERA
Rafa CRIADO DEL PUERTO	BERA
Alexis VILLANUEVA NEGRETE	BERA
Entrenatzailea: Jokin RICO LOPEZ eta Jon ALTZUGUREN	

du. Beraz, igoeratik gol bakar batera gelditu da

Gure Txokoako areto-futbol taldea.



ZELAIETA TAILERRAK

Okindegirako tresneria

Zalain Ind., 12. Postakutxa • BERA
Tel.: 948 63 10 04 • Faxe: 948 63 13 08
e-posta: info@zelaieta.com
www.zelaieta.com

ttipi
ttapa

Tfnoa: 948 635458

Faxa: 948 635457

e-posta: ttipi-ttapa@ttipi.net

Andutzeta 12 • 31760 ETXALAR

Saneamientos GARE




- Bainugelako altzari eta osagarriak.
- Hidromasai dutxa eta bainuontziak.
- Berogailu instalakuntzak.
- Gas natural instalakuntzak.
- Tituludun teknikariak.



*C/Kanttonberri, 10 Baje
Bera*

*Tel.: 948631107 / Fax.: 948631002
Movil: 608976034*



BORTZIRI
UNSION ANAIK

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA - Tel.: 948 637 266- 948 631511 • 607 226 891 - Faxa: 948 637 511



BERATARRA
ARGIÑAK

Jose Ignacio MARITORENA LARRALDE

DONEZTEBE 670 48 93 37

Pedro BERASATEGI DAGERRE

BERA 617 34 63 78



LA CAIXAN AURREZTEA
ERRENTAGARRIAGOA
ATERAKO ZAIZU

PLAZO FINKOA
%3,50 TAE

BERA • 948 625 471
ELIZONDO • 948 581 414

LEITZA

Info-Local telefonoak informazioa eskainiko die herritarrei

Sahararen aldeko hirugarren jaialdia egingen da ostiral honetan zineman

Mikel ILLARREGI

Nafarroako Gobernua eta udalaren arteko hitzarmen baten ondorioa da Info-Local. Honen bitartez, herritarrei laguntza eskaintzen zaie modu eroso, azkar eta egokienean, informazioa behar dutenean, tramiteak egiterakoan edo iradokizunak aurkezterakoan. Honetarako telefono zenbaki bat jarri dute martxan, 012 hain zuzen.

Diotenez, hasieran, euskarazko hitzezko zerbitzua eskaini arren (ahozko informazioa

euskaraz lortu dezakegula, alegia) base datua oraindik oinarritzokoa gazteleraz da gehienbat, eta hau gehituz joanenez herritarren aukera izanen da hau gutxienez euskaraz izan dadin. Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera, 8:00-19:00. Larunbata, 9:30-13:30 (udan asteleheneetik ostiralera, 8:00-15:00). Dei bakoitzaren kostua 0,34 €.

San Juan bezpera

Ohitura bihurtu denez aurten ere, ekainaren 23an, San Juan egu-

naren bezperan arratsaldean gazteek ingurtxoa dantzatuko dute plazan eta ondoren txistorra otartekoak. Gaueko 21:00etan afaria plazan, norberak edota talde bakoitzak eramaten duenarekin. Edariak, ogia eta soinua udalak jarriko ditu.

Sahararen alde

Ekainaren 18an, 22:00etan Sahararen aldeko jaialdia eskainiko dute zineman. Aurten hirugarrena da eta egin duten prestaketari beragratuz gero, sekulakoa




ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Mendi taldeko kideek diotenez, azkeneko irteeretan eguraldi onaz gozatzeaz gain, jende kopuru handia lortu izan da eta hori "pozteko modukoa da". Azkenekoa Belate-Leitza izan zen eta bikain egin eta igaro zuten joandakoek. Hurrengoa ekainaren 25 eta 26an izanen da eta bi egunetako hau Piriniotara da, Ayous mendira hain zuzen. Honetarako bezperan, 25ean goizean aterako dira plaza-tik eta arratsaldean hiru orduko ibilaldia eginez para-je apartan dagoen Ayous aterpetxera joan dira, Midi d'Osseu mendiaren pare parean. Hurrengoa egunean, Ayous tontorrera igo eta itzulera.

izanen da. Jaialdiaren helburuak bi dira: ikuskizunaren inguruan herriko jendea bildu Sahararen errealitatea hurbilgotik ezagutzeko eta

honuntz datozen saharuariar gazteen bidaia ordaintzeko beharrezkoa den dirua biltzea. Aurten bost gazte etorriko dira udan herrira.



Andy Wilson (Londres)

Andy Willson Londres inguruan dagoen auzo batean jaioa da eta 22 urte zituela munduan zehar batetik bestera ibiltzea erabaki zuen. Zortzi urtetan ikusi, bisitatu eta bizi izandako toki batzuk: Australia, Indonesia, Malasia, India, Nepal, Thailandia, Filipinak, Txina, Namibia, Israel, Egipto... eta Europa gehiena, noski. Israelen adibidez, hiruzpalau urte igaro zituen "kibutzetan" biziz. Zaila zaio, hauetatik, toki hobereana aukeratzeko, "denek egiten didate galdera bera eta egia esanda ez dakit, denek baitute ona dena eta hain ona ez dena" dio Andyk. Halere, toki bat aipatzeko: Leitza. "Herri eta inguru honek badu zerbait berezia".

LONDRESETIK MUNDURA, MUNDUTIK LEITZARA (9)

Duela 8-9 urte etorri zen, baina aurretik bizpahiru aldiz egun bere emaztea denarekin, Lierni Lasarterekin, etorria zen eta lilluratu geratu zen. Lierni, ingelesa ikastera joan zen duela hamar bat urte Londresera. Han, Londreseko parke batean elkar ezagutu zuten, bertan txima luzedun mutilak musika aditzeko kaskodun neskari lehen hitza luzatu zion eta handik aurrera, bizitzaren beste etapari eman zioten hasiera.

Lana aldetik, denetatik egin du gure solaskideak, gehiena erai-kuntzan peoi moduan izan bada ere, han eta hemen, mendian, kamarero, jardineru, modelo moduan ere,... suertatzen zen guztia harapatu izan du aurrera egin ahal izateko.

Euskal Herrirantz etorrita lehenengo urtean Donostian igaro zuen eta ilazki euskaltegian euskara ikasten aritu zen. Lehenbiziko lau hilabeteak gogorrik izan ziren, "baina gero burua ordenatzen hasi nintzen eta pixkana hitz egi-

ten hasi nintzen". Munduan zehar ingelesa erabili du gehienbat, hala ere, hebraiera ere ikasi zuen Israelen. Ondoren euskara eta orain gaztelera ikasten ari da, ulertu, ulertzen du baina mintzatzeko oraindik ez da gai. Esan beharra dago, Liernik itzuli digun bizpahiru esaldiez gain, beste guztia euskaraz egin dugula. Aipatu ere, bi urte eta erdiko alaba dutela, Jennifer Willson Lasarte, eta honekin berezko harremana ingelesez dutela. Liernirekin, gehienetan, ingelesez egiten du.

Bere herriaz zerbait faltan sumatzen duen galdetuta "Ez deus ere ez. Beno, zerbezak, hori bai. Han taberna bakoitzean hamar zerbeza klase ezberdin eskaintzen dira". Bere senideak eta lagunak etortzen dira hona, uda garaian eta beraiek aste santutan itzultzen dira Londresera.

Behin eta berriro errepikatzen digu, hona etorri zenean "flipatu nuen. Hemengo parrandak, gau-pasak, ongi jatea, ... Bestetik, han

behin ere ez zuen siestarik egin eta hemen bazkalondoren kale aldera begiratu eta ez nuen inor ikusten. Hasieran ez nuen ulertzen, gero nik ere siesta egiten nuen". Dena den, lehenbiziko egunetan ez omen zen etxetik ateratzen eta atera zedin, Liernik mandatuak egitera bidaltzen zuen, paper batean erosi behar zuena idatzita. Horretaz gain, keinuak izan ziren komunikatzeko lagun handiak. Hasiera hasieratik jendeak oso ongi hartu zuen, "kaletik nindoala; Kai-xo Andy!... eta nik bistaz, agian, baina bestela ez nituen gehienak ezagutzen. Baina, oso ongi...". Zaletasunez galdetuta, pintura, mendia eta argazkigintza komentatzen digu. Horrenbeste toki ezagututa, Munduko informazioa jarraitzen du baina ez modu berezian, "arazok toki guztietan baitaude". Hemengo arazoei dagokionez, batean edo bestean sartu da, Egunkariarena adibidez, baina oraindik "ez naiz gehiegi identifikatzen hemengo arazoei".

ZUGARRAMURDI**Fernando Arburuari ongietorria eskaini zitzaion herrian****Margari eta Koro**

23 urteren buruan berri herra itzuli den Fernando Arburuari ongi etorria eman zitzaion ekainaren 8an. Eguerdi aldera plazat ailegatu zen eta han lehenbiko musu eta besarkadak hartu zituen (hunkigarriena behar bada Etxenikako Antxonena izan zen). Gero arratsaldean (gizona leher egina zegoen eta sies-ta txiki bat egiten utzi behar izan zioten) "Arleun Elkartean" 60 bat lagun bildu ziren bere inguruan, berendu-afari bat antolatuz. Hantxe denen artean bertso batzuk kantatu zizkioten eta ondotik patxada ederrean guztiekin banan-banan eta trankil solas egiteko aukera izan zuen. Ilunabarrean hurrek suziriak eta su ar-

tifizalak eskeini zizkioten (Ganix piromano nagusia) eta azkenik goxo-goxoan betiko kantu zaharrak (Ixil-ixilik dago, boga-boga...) abes-ten akitu zen eguna.

Igandean bazkari herrikoi bat egin behar zitzaion musika, dantza eta guzti. Honetara 120 lagun bildu ziren.

Gaupasa ekainaren 19an

Larunbat honetan, ekainaren 19an, eginen da lezeetan Zugarramurdiko gaupasa. 23:30etan kontzertua eskainiko dute More eta Munipas Andergrou taldeek. Goizeko 2:00etan Akelarre antzerkia izanen da Deabru Beltzak taldearekin eta Zugarramurdiko sorginekin. Gero, dantzaldia izanen da Akelarre taldearekin.



ARGAZKIAK: KORO

Herritarren ongietorria eta maitasuna jaso zituen ekainaren 8an Fernando Arburuak, 23 urtez preso izan ondotik. Igandean herri bazkaria egin zen.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tiñoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

SOULE

Hileta artea

© 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

BAZTAN

Erratzuko
Sanpedro
bestak
ekainaren 28tik
uztailaren 3ra
Egun haundian asto lasterketa
eginen da herrian barna



ARGAZKIA: XANTI IBARGARAI

Herriko gazteak gustora, zikiro-jateko bazkalondoan. Aurten ere giro ederra izanen da, doike!

Astelehena 28 Bezpera

20:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea.
21:00etan Baztan zopak Kastonean.

Asteartea 29 San Pedro Eguna

10:00etan argi soinuak.
11:00etan Meza Nagusia udaleko ordezkariekin.
12:30etan luntxa Kastonean.
18:00etan asto lasterketa herrian barna.

20:00etan kantaldia GAZTELU taldea eta BERRIKETAN. Kantu Zaharrak berritzen.
22:30etan Mutildantzak.
0:00etan dantzaldia ZIKLON taldearekin.

Asteazkena 30 Haurren Eguna

10:00etan argi soinuak.
11:00etan karts eta gaztelu puzgarriak.
13:30etan haurren bazkaria.
16:00etan karts eta gaztelu puzgarriak.
18:00etan japoniar bon-

bak.
20:00etan dantzaldia ZIKLON taldearekin.
22:00etan mutildantzak.
22:30etan PAMPI PORTUGAL, Iparla ostatuan.
0:00etan dantzaldia ZIKLON taldearekin.

Ortzegune 1 Pause

Ortzileria 2 Zikiro-jatea

10:00etan argi soinuak.
11:00etan pilota Go-

rostapolon.
14:00etan bazkaria frontoian. Ondoren magra, ardoa eta ogi zozketa.
20:00etan dantzaldia FRANTXISKOREkin.
22:00etan mutildantzak.
0:00etan dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Launbeta 3

10:00etan argi soinuak.
12:00etan postre eta pintxo lehiaketa.
18:00etan pilota, pala

motzean. Nafarroako gazte finala eta Mundialetako nafar selakzionatuen arteko partida.
20:00etan bertso poteoa.
20:00etan dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.
22:30etan mutildantzak.
23:00etan su artifical ikusgarriak.
0:00etan gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin. Eta Gaixoak gu... biher!

Albantzena OSTATU-DENDA

Santi Dendarieta

Albantzena Etxea, ERRATZU. Tfnoa:948 45 31 12

Besta
onak pasa!

IPARLA OSTATYA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda
- Giro ona

Aduana karrika
© 948 453153
ERRATZU

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN
- Ogi artisauna, egunekoa eta txapatu
JATETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilan erretako jakieten

© 948 45 34 01 - 31112 ARIZKUN

ALEMAN zerrategia

- Teilaturako estruktural (douglas, pinua, haritza)
- Tarima
- Portxeak tamaina egokian

Frantziarako errep. z/g
ERRATZU
© 948 453173

BAZTAN

Arizkungo Sanjuanak ekainaren 23tik 27ra

Haurren egunean Baztan eta Ultzama arteko rugby partida



Herriko dantzarien emanaldiak ikusmina sortzen dute aspalditik, argazki zahar honetan ikusten ahal den bezalaxe.

Asteazkena 23
San Juan bezpera

12:00etan besten hasmenta. **13:00etan** txopo goratzea dianekin. **13:30etan** gazteen luntxe. **14:00etan** txopo goratzaileendako bazkaria. **17:00etan** Arizkungo pala txapelketako finalak. **Ilunabarrean** San Juan suek eta ezkil jotzea. Ondotik antzerkie. **22:30etan** Baztan zopak. **24:00etan** dantzaldie IÑAZKI taldearekin. **5:30etan** kabiar jatia.

Ortzegune 24
San Juan egune

6:00etan ezkil jotzea. **10:00etan** dianak.

11:00etan Meza Nagusia. Ondotik mutil dantzak. **13:00etan** herriko luntxe. **17:00etan** antzara jokua. **19:00etan** kantaldia. **20:00etatik 22ak arte** dantzaldia AGERRALDErekin. Ondotik, mutildantzak eta gaita. **24:00etan** dantzaldia AGERRALDErekin. **5:30etan** angula jatea.

Ortzileria 25
Zikiro eta Mozkor Egune

10:00etan dianak. **12:00etan** mus iñezture. **14:00etan** zikiro jatea. **17:00etan** poteoa txarangarekin. **18:00etan** asto karrera. **20:00etatik 22:00ak ar-**

te JALISKO BAND taldearekin gerrontze mugitzea. Ondotik mutildantzak eta gaita. **24:00etan** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **5:00etan** ziztor jatea.

Launbeta 26
Haurren Egune

10:00etan dianak. Goiz guzian haur jokua. **14:00etan** haur bazkaria. Atsaldean haur jokua. **17:00etan** rugby partida Lamiarriten: Baz-

tan vs Ultzama. **20:00etatik 22:00ak arte** dantzaldia HAITZAMA taldearekin. **5:30etan** alkoholemia lehiaketa: irabazlearendako gosaria. Ondotik zinger jatea.

Igendia 27
Ondar Egune

10:00etan dianak. **12:00etan** laxo partidue. **16:00etan** plater tiraketa herrikoia. **18:00etan** dantzariak: gaita, jota, porrusalda, irri dan-

tzak... **20:00etatik 22ak arte** dantzaldia AGERRALDErekin. Ondotik mutildantzak eta gaita. **24:00etatik** aspertu arte dantzaldia AGERRALDErekin. **4:00etan** txopo botatzea eta gaixua ni.

ETXEBERRIA
OSTATUA

Ongi pasa herriko bestak!

© 948 453013
Karrika Nagusia 12
ARIZKUN

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
© 948 453310 - 948 453375 • Faxe: 948 456201
Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**

BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria tresneriaren konponketa eta salmenta
© 948 453425
ARIZKUN

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak

DOLATXEA
OSTATUA
Bestak ongi pasa!
© 948 453002 • **ARIZKUN**

ARIZKUN
zerrategia
➔ Zerrategia
➔ Zurezko teilatuak
© 948 453 304
Dantzarineako errep.
ARIZKUN

BAZTAN

Erdizagan meatzea ireki nahi du Magnesitas Navarras enpresak

Balleko Udalak Batzorde Berezia osatuko du afera aztertzeko

ttipi-ttapa

Baztango Erdizaga inguruan meatzea egin asmotan dabil Magnesitas de Navarra enpresa, nonbait, Azkaraten (Esteribar) duen magnesita meatzeko erreserbak akizetik hurbil dituelakoz. Horretarako, Ingurumen Inpaktuaren Estudioa egiteko tramiteak egin ditu Nafarroako Ingurumen Departamentuan.

Erdizaga ingurua, Natura 2000 Sareko Aldude Mendia Interes Komunitarioko Lekuaren barnean dago eta horren jakitun da Magnesitas, baina Baztango Udalarari igorritako idatziaren arabera, «*meatzeak balore ekologikoak eta ingurumenekoak oso-osorik errespetatuko ditu*». Gainera, lantegiaren ustez, leku bat Sare horretan sartzeak ez du aktibitate produktiboa galerazten denik erran nahi, «*babesten diren baloreak kaltetzen ez dituzten plan eta proiektu ezberdinak*



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Ikastolaren Eguna egingen da ekainaren 20an, igandearrekin. Goizeko 10:00etan meza izanen da. Gero, haurren dantzak ikusgai izanen dira eta omenaldia eskainiko zaio Maite Iturralde irakasleari, 25 urte eman baititu ikastolan. 13:30etan herri bazkaria izanen da Merkatuzelaian. Bazkalondogan, dantzan aritzeko aukera izanen da Francisco Santxotenenaren doinuekin eta gero, haurrendako jokuak izanen dira.

onartzen direla baizik». Modu berean, Magnesitas enpresaren borondatea omen da mendi hori produkziarako erabiltzen duten base-ritarrak eta aisialdirako erabiltzen duten ehiztariak ahalik eta gutien kaltetzea. Udalera igorri-

tako idatzian, meatze honek Baztaneri ekarriko dizkion onura ekonomikoak eta sozialak eta sortuko dituen lanpostuak ere aipatzen ditu enpresak.

Eskari honen aitzinean, Balleko Udalak batzorde berezia osa-

ntzea erabaki zuen maiatzaren 21eko batzarrean. Batzorde honetan Industria, Herrilan, Garraio eta Komunikabide batzordetako zinegotziak izanen dira, baina irekia egonen da Udaleko eta Junta Generaleko bertze kideei ere.



HERIOTZA

Felix IRIARTE

Baztango atabalaririk famatuena ekainaren 6an hil zen Arizkunen

Ekainaren 6an hil zen Felix Iriarte Iribarren Arizkongo atabalari famatua, 85 urte zituela. Iriartek Baztan eta inguruko herri gehienetan aritu zen atabala jotzen, Mauricio Elizalde eta Javier Larralde txistulariekin batera. Horretaz gain, bertsolaria ere izan zen. Gutxi dira bere izenean karrikaren bat duten musikariak eta gutiago oraindik karrika hori bizirik zeudela ezagutu dutenak. Felix Iriartek hori ezagutu zuen, Elizondoko Maurizio eta Felix karrika, hain zuzen. Biek zuten estimazioaren seinale. Adiorik ez, Felix!



asnap.me
asesoramiento de la gestión y servicios legales

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igehilerak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asesoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONETERRI
 Itza Semerik, 4. bulego
 Tfno: 948 411822 Tfno/Fax: 948 411418
 info@asnap.me

ELIZONDO
 Sarriaga, 51. bulego
 Tfno/Fax: 948 580 506
 elizondo@asnap.me

LEIOA
 Sarriaga, 1. bulego
 Tfno: 948 262208 Tfno/Fax: 948 262194
 leioa@asnap.me

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO



OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SENPERE

Musika eta giro ona nagusituko dira Jondoni Petri kari egingen diren herriko bestetan

Zaldubi ikastolako haurrak diska bat prestatzen ari dira

Franck DOLOSOR

Musikari ainitz bilduko da herriko besten karietarat erearoren 25etik 29rat, hauen artean Kiki Bordatxo, Piarres, Tabasco, Samain, Emak Hor, Aistrika edo Zaldubiako trikitilariak bertzeak bertze. Aurten, ardi mozte lehiaketa egingen da astearte goizarekin. Pilotak ere toki zabalaren du partida ainitz jokatu baita. Haroçarene anaiak Berasategi-Ibarbururen kontra ariko dira astelehenearekin eta biharamuñean Aranburu-Maite/Alfaro-Parachuren parean izanen dira. Familiarekin eta lagunekin egoteko egun biziki onak izanen dira denentzat. Besta on deneri.

Ikastolako hurrek diska karrikaratuko dute

Senpereko ikastolako hurrek diska bat prestatu dute beren erakasle eta musikari batzuen laguntzarekin. "Haurrock" gazte talde-

aren kantuak ikasi dituzte Olivier Zozaia eskola emailearekin. Ibarrungo Inharrean ekainaren 11an egin zen bestan grabatu zuten diska hori eta ondoko asteetan salduko dute. Herriko bestetan ere kantu hauek entzuten ahalko dira hurrek kantaldi bat eskainiko baitute.

Kermeza

Ekainaren 20an, herriko kermeza ospatuko da Gantxiki pilotalekuan. Goizean, Plazako errota-ateak zabalik izanen dira.

Saiberri elizan

Sarako Saiberri taldea elizan entzuten ahalko da uztailaren 7an gaueko 9.30tan.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lehen eta bigarren jaun-hartzeak ospatu ziren maiatzaren 20 eta 30ean.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Amen bestaren kari, erearoren 5ean, Lemence eta Omnès andereak omendu zituzten herriko etxean zazpi eta borts haur izan dituztelakotz. Bi emazte hauek egin duten lana goraiatu zuen andere-auzapezak.

Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalein, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ttipi
ttapa
☎ 948 635458

ZOANSA

BEAT ALUO VW SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Herri ferde labela eskuratu du Azkainek

Turismo bulegoak Internet helbidea sortu du

Angela eta Xamo

Ipar Euskal Herrian 8 herrik bakarrik "Hiri edo Herri loratuen" labela eskuratu dute. Holako bereizketa errezi-bitzeko, irizpide zehatz batzu errespetatu behar dira, bereziki herri liliztatzea, ingurumenaren kalitatea, bizilekuaren hobekuntza... Gure herri baldintza horiek betetzen ditu aspalditik. Ekainaren 5ean, «herri loratuen» bestaren egunean, urrats berri bat egiten zuen, «Oporren herri ferde» labela izenpetuz. Horrek erran nahi du gure herriak kalitatezko zerbitzuak ofreitu beharko dizkiela kanpotiarreri. Gertakari hori ospatzeko, animazio batzu antolatuak izan dira egun osoan. 260 pottoken elgarretaratzea elizaren ondoan, baratze kreazioa, txopinondo jastaketa, merkatua (larunbatero egiten den be-

zala), ardieri ile mozketaren konkurtsoa edo lkasleak dantza taldearen erakusketa, denetarik izan dira herritarren plazerrarendako.

Internet helbide bat turismo bulegoan

Maiatzaren 29an, Azkaingo turismo bulegoak bere biltzar nagusia antolatu zuen. Parada horretan, urtean zehar herriko etxearekin edo bakarrik egin dituen gertakari guztiak presentatu ditu Andde Etxegoienek. Bainan, biltzar nagusiaren berri inportantea izan da Internet helbidearen sorkuntza, beharrezko tresna bat turismo bulego baten komunikazioarentzat.

Herriko etxe euskaldunen eguna

Ekainaren 19an larunbatarekin, aipatu du-



gun bezala, herriko etxe eskualdunen eguna izanen da. Euskal Konfederazioak antolatzen du egun hori, Euskal Kultur Erakundea, UEMA eta Xiberoko Su Azia elkartearen laguntzarekin. Bi helburu nagusi badira kanpaina hortan: eskualdunek beren herriko etxeetan euskarazko zerbitzuak ukaitzeko parada izango dute. Honen bidez, langileak euskara ikasteko aukera izango dute formazioak eginez. Euskarari ofizialtasuna emaita herriko etxeen engaiamenduaren bitartez. Gaur, 27 herriko etxeek izenpetu dute Euskal Konfederazioak proposatu duen hitzarmena.

Bretaina, Alsazia, Katalunia eta Arango araneko lekukotasunak entzuten ahalko dira, ba-



koitzak heien urratsak hizkuntzaren biziraupena eta garapena aipatzeko. Animazio desberdinak proposatuak izanen dira egun hortan: mahain-ingurua 10etan, ekitaldi ofiziala eguerditan, herri bazkaria Martzeneko eskolan, "Kiki eta koko" pailazoen ikusgarria eta bukatzeko "Txan magoa" erakusketa Bil Tokin.

Haritza Galarraga
Segiko hiru gazteak,

Haritza Galarraga, Yves Machicotte, eta Amaia Recarte, auziaren erantzuna izan dute ekainaren lehenean. Jukeak erabaki du ez direla Espainiako justiziaren eskuetan eramaten ahal, Espainia eta Frantziaren arteko akordioak izanez ere. Bainan, prokuradorea ez da hortan gelditu, auziaren deia egin duelako. Orain, Frantziako justiziak 40 egun baditu dei hori onartzeko ala ez.

bentamiguel
dentsa, jantzia eta osotasun

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Taldea
Guzurak
Jantziak
Unaiategia

Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209

udana
salazn

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko leben kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

SARA

Laugarren aldikotz Sara VTT eginen da ekainaren 20an

Ikasturte bukaerako bestak antolatu dituzte herriko hiru ikastetxeetan

Saski eta Joana

Aurten ere, turismo bulegoak Sara VTT 4. edizioa antolatzen du ekainaren 20an, igandearekin. Abiatzea goizeko 9:00etan eginen da Sarako plazatik eta parte hartzea 8 eurokoa izanen da pertsona bakoxtarentzat. Bi ibilbide desberdin izanen dira, lehena, ttikia 15 kilometrokoa eta bestea, luzeagoa 35 km-koa. Antolatzaileek azpimarratu dute "ibilaldi" bat dela eta ez txapelketa bat.

Bidean jatekoak eta edatekoak izanen dira. Eta ez da ahantzi behar zorbait gauza beharrezkoak direla parte hartzeko hala nola kas-ka, medikuaren agiria... Xehetasun gehiagorentzat edo izenak emaitenko, deitu 05.59.54.20.14 zenbakira (turismo bulegora).

Urte bukaerako bestak

Udako bakantzak hurbiltzen ari dira eta Sarako hiru eskolek be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mixel Hacala margolariaren lanak ikusgai izanen dira ekaina osoan Ihartze Artea etxeko gela batean. Egunero, goizeko 10:00etatik goiti ateak idekiak izanen ditu erakusketak.

ren besta antolatuko dute aurten ere. Egin ohi den bezala, hurrek ikusgarri bat presentatuko dute eta ondotik afari baten inguruan bukatuko dute urtea. San Josep eskolako besta ekainaren 26 an iraganen da gaueko 8etatik goiti eta eskola publikoko besta uztailaren 3 an. Aldiz, Olhain ikastolaren besta uztailaren

11 an eginen da. Egun osoan, kantuak, musika, pilota partidak, bazkaria... izanen dira. Xehetasun gehiago ematen ditugu berantago.

Herriko Etxeko Edantegia itxia

Herriko Etxeko Edantegia hertsia izanen da ekainaren 14tik 28a arte, bezeroek bakantzak har ditzaten!

Mixel Hacalaren erakusketa

Ekaina osoan, Mixel Hacala artistak bere obrak erakutsiko ditu, Ihartze Artea etxeko gela batean. Erakusketa hori batez ere Saratarrei idekia izanen da, egunero, goizeko 10:00etatik goiti, beraz herrian bertan artea das-tatzeko modua bada.





EZKONTZAK

Patxi Xabier Sansiñena Jauregi eta **Itziar Larramendi Etxaide**, Iruña eta Iruritakoa, maiatzaren 29an.

Jon Estebe Maisterrena Arraztoa eta **Maria Lourdes Mendiburu Mendiburu**, Lekaroz eta Iruñakoa, maiatzaren 29an.

Ander Joset Berruet Hirigoien eta **Silvana Chumuski**, Donibane-Lohitzune eta Brasilgoa, Elizondon, ekainaren 7an.

Jakes Bernet eta **Mirentxu Doyhenart**, Sarakoak, ekainaren 12an.



SORTZEAK

Xuban Elizondo Goia, Lesakakoa, maiatzaren 22an.

Hodei Aleman Azkarraga, Iruritakoa, maiatzaren 21ean.

Miren Belate Irigoien Inbuluzketa, Elizondokoa, maiatzaren 27an.

Iñigo Altzugarai Zabalza, Elizondokoa, ekainaren 1ean.

Maialen Baraibar Gortari, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 27an.

Argider Zabala Alduntzin, Leitzakoa, maiatzaren 26an.

Nahia Pagola Romano, Berakoa, maiatzaren 29an.

Beñat Elizegi Loiarte, Goizuetakoa, ekainaren 1ean.

Aimar Arretxea Mikeo, Iturengoa, maiatzaren 19an.

June Ariztegi Altxu, Iturengoa, maiatzaren 25ean.

Maialen Urroz Gonzalez, Urrozkoa, martxoaren 12an.

Oihan Alfaro, Sarakoa, maiatzaren 7an.



HERIOTZAK

Guillermo Joaquina Otxoa Sanz, Lekaroz, maiatzaren 27an, 92 urte.

Felix Iriarte Iribarren, Arizkungoa, ekainaren 6an, 85 urte.

Luis Alduntzin Juanena, Leitzakoa, maiatzaren 25ean, 84 urte.

Iluminada Olazar Iriarte, Berroetakoa, maiatzaren 26an, 92 urte.

Jose Luis Etulain Barazabal, Arizkungoa, maiatzaren 27an, 70 urte.

Martin Etxeberri, Lekarozkoa, maiatzaren 27an, 66 urte.

Maria Pilar Sobrino Azkarate, Elizondokoa, maiatzaren 31n, 82 urte.

Pedro Mari Mitxelena Uriarte, Leitzakoa, ekainaren 3an, 48 urte.

Jose Maria Elizagoien Larralde, Elizondokoa, ekainaren 7an, 78 urte.

Maria Guadalupe Berrouet (Agesta), Sarakoa, maiatzaren 15ean.



**Francisco
ASENSIO MERINO**

Beran, 2004ko maiatzaren 24an

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.

ZURE FAMILIA



**Pedrito
IRIGOYEN IRAOLA**

V. URTEMUGA (Bepa, 99.07.06)

Seguru urte aumitz pasatuko direla, eta hau bosgarrena bertzerik ez dela izanen baina urteak kontatu ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.

Pepita, Josema eta Patxi



**Eskela eta eskertzak
948 635458**

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da.

Rural Kutxako

3008 0080 53 0703304626

kontuan sartu eta justifikantea

ttipi-ttapara igorri faxez (948

635457) edo postaz

argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

(Andutzeta 12, 31760 Etxalar)

HERRI KIROLA

Nafarroako sokatira txapelketa guzien jabe egin da Lesakako Beti Gazte taldea

560 kilokoa Burlatan janzteko lana gogotik egin behar izan zuten

A.A.

Lesakako Beti Gazte taldeak Nafarroako sokatira txapelketako hiru txapelak irabazi ditu aurten. Ekainaren 5ean Burlatan jokatuak saio bakarrean irabazi zuen azkena, 560 kilokoa. Talde berritua izanagatik, ordura arte nagusitasun osoz aritua zen Lesakako taldea, 640 eta 600 kiloko txapelak erraz irabazi baitzituen. Espero bezala, 560 kilotan lan gehiago egin behar izan zuten eta txapelketa osoko tiraldirik ikusgarrienak eta luzeenak ikusi ziren Burlatan. Txantrearen kontrako batean, tiraldia galtzetik metro eskasera izan ziren, baina buelta eman eta irabaztea lor-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Beti Gazte taldeak Lesakan bertan jantzi zuen Nafarroako lehen txapela, 640 kilokoa. Geroztik, bertze biak ere, 600 eta 560 kilokoak, irabazi ditu.

tu zuten. Berriozarren kontrako tiraldiaren ai-

tzetik, Lesakako tiralari batek min hartu zuen

eta zazpirekin tiratu behar izan zuten. Baina

Berriozarko taldeak, kiroltasun osoz, bere tiralarietako bat kendu eta zazpi zazpiren kontra aritu ziren. Hemen ere bi tiraldiak irabazi zituen Beti Gaztek, baita Burlataren kontrakoak ere. Azkenean, beraz, kostata izan bazen ere, 560 kiloko txapela jantzi zuen beti Gaztek. Aurten, Nafarroan jokatu diren hiru txapelketak, 640, 600 eta 560 kilokoak irabazi ditu, tiraldi guztiak irabazita. 640 kilokoa Sunbillan eta Lesakan jokatu zen; 600 kilokoa Urdazubin eta Berriozaren eta 560 kilokoa Burlatan. Dagoeneko Nafarroa, Euskal Herria eta Munduko 31 txapelketa irabazi ditu Lesakako taldeak.

Urrezko Aizkolarien finala jokoan ekainaren 19an Azpeitian

Floren Nazabal eta Donato Larretxea aurrez aurre izanen dira

ttipi-ttapa

Ekainaren 19an, larunbatarekin, Urrezko Aizkolariek txapelketaren finala jokatuko da Azpeitian, 23:00etatik aitzinera. Herri kirolean hitzordu arraro xamarra izan arren, bertan izanen dira Donato Larretxea aranztarra eta Etxarriko Floren Nazabal, maila nagusiko txapela jantzi asmoz. Gazte mai-

lako finala ere bertan jokatuko dute Arria V.ak eta Aitor Senosiainek.

Maila nagusian, ekainaren 6an Urrestillan jokatuak hirugarren posturako lehian Joxemari Olasagastik irabazi egin zion Mikel Mindegari. Gazte mailako hirugarren postua Beintza-Labaiengo Xabier Mindegia lortu zuen, Arkaitz Iriarteri irabazita.

INAXIO PERURENAREN MARKA

Inaxio Perurena Leitzako harrijasotzaile gazteak marka berria ezarri zuen ekainaren 6an Urrestillan, 20 urterekin 210 kiloko harria esku bakarrarekin altxatu ondotik. Horrekin aski ez eta bigarren aldiz altxatu zuen harritzarra, biak bi minutu eta 21 segundutan.



TXIRRINDULARITZA

Xabier Telletxea igantziarra Euskal Herriko txapeldun

Junior mailan Andoni Martikorena beratarra izan zen irabazle mendi bizikleta jautsiera proban

A.A.

Euskal Herriko mendi bizikleta jautsiera jokatzen ekainaren 5ean Igantzin, Biltoki Elkar- teak antolatuta. Fraingo kaxkotik hasi eta Bar- tazarrea bitarteko ibil- bide arriskutsua egin behar izan zuten sei kate- goriatan banatutako 48 txirrindulariek. Maila na- gusian, elite mailan alegia, Igantziko Xabier Tel- letxea izan zen garaile. Joan den urtean ere bere herriko proba ira- bazi zuen, Nafarroako txapela jantziz eta aur- ten Euskal Herrikoa es-

kuratu du. 3 minutu, 15 segundu eta 19 zente- sima izan zen bere den- borarik onena.

Kategoria honetan bi- garren izan zen Mikel Bergara (3 minutu 18 segundu eta 80 zente- sima) eta hirugarren Juan Luis Leon (3 mi- nutu, 28 segundu eta 81 zentesima).

Junior mailan, An- doni Martikorena ber- atarra nagusitu zen, 3 mi- nutu 27 segundu eta 95 zentesimako denbora- rekin, Iñaki Aginaga izan zen bigarren, 3 minutu 36 segundu eta 13 zen-



ARGAZKIA: LEGARRA

Ezker-eskuin, Xabier Telletxea igantziarra, Eneko Ado, Hegoi Ado eta Iñigo Blas beratarrak.

tesimako denborarekin eta Ugaitz Ado berata- rra hirugarren, 4 minu- tu 27 segundu eta 70 zentesimako denbora- rekin.

23 urtez beheitiko ka- tegorian, Jose Antonio Diez nagusitu zen, 3 mi- nutu 16 segundu eta 5 zentesimako denbora- rekin, Iñigo lantzi ber- atarra bigarren izan zen, 3 minutu, 18 segundu eta 55 zentesimako den-

borarekin eta Eneko Ado hirugarren, 3 minutu 18 segundu eta 91 zente- simarekin.

Master 30 kategorian Jose Luis Iñorbe gai- lendu zen, Rigida kate- gorian Ruben Pascual eta beteranoetan Jose Antonio Maceira.

Aurten ez da ema- kumezkoen probarik egin, ez baitzen parte- hartzailerik aurkeztu. Jo- an den urtean Miriam

Blas beratarra izan zen garaile, baina oraingo- an ez zuen parte har- tzerik izan, ekainaren 6an Eskozian burutu zen Munduko Kopan aritze- koa baitzen.

Iñigo Blas, Miriamen anaiak parte hartu zuen eta lehen jautsieran ka- detetako denborarik onena egin zuen. Biga- rrenean ordea, istripua izan zuen, zorionez le- sio larririk izan gabe.

MENDIA


Lesakako VII. Mendi Itzulia ekainaren 20an

35 kilometroko luzera izanen du eta Bianditz kaxkorik garaiena

A.A.

Ekainaren 20an, igandearekin eginen da Lesakako Beti Gazte el- kartea zazpigarren aldiz antolatutako Mendi Itzulia. Ibilbideak 35 ki- lometro izanen ditu, Le- sakako Plaza Zaharretik abiatuta 225 metro- ra dagoen Banartan bar-

na, Agiñako kaskora ai- legatuko dira, 612 me- trora. Bertatik, Aiako Har- rien azpian, San Anton urtegiara joko dute ibil- tariarik eta hemen bi au- kera izanen dituzte: 481 metrotara dagoen Ari- txulegira zuzen joatea, gisa horretan ibilbidea 8 kilometrotan laburtuz



San Antonetik Aritxulegira zuzen joanda 8 kilometrotan laburtuko da bidea.

edo Aiako Harriak in- guratzea Elurretxen bar- na. Behin Aritxulegin, itzuliko leku garaienara abiatuko dira, 844 me- troko altuera duen Bian- ditz mendira. Bianditzen, ibilbidearen bi heren be- teak izanen dira eta Itxaszelaitara jaitsi be-

harko da, Burnaizegi, Elutxa eta Pagolleta gi- belean utzita. Itxasze- laitatik 646 metrora da- goen Unanu igo eta Ar- ginenbordako errekatik herrira bueltatzea ber- tzerik ez da egin beharko mendi itzulia akautze- ko.

Izen ematea goize- ko 6:45etatik 7:30etara egin beharko da Plaza Zaharrean, 6 euro or- dainduz (4 euro Beti Gazteko bazkideek), igerilekuetarako sarre- ra barne dela. Ibilbidea goizeko 7:00etatik 7:30etara hasiko da.

AGENDA

egunez
egun

BESTAK

DONEZTEBE

Ekainaren 26tik 30era
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

ARIZKUN

Ekainaren 23tik 27ra
Xehetasunak 22. orrian.

ERRATZU

Ekainaren 28tik uztailaren
3ra. Xehetasunak 21. orrian.

SALDIAS

Ekainaren 23tik 27ra.
Xehetasunak 15. orrian.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Ekainaren 19 eta 20an
Sunbillan eskalada eta
rapela antolatu dute
Sunbillako Illurdi mendi
taldeak.

Ekainaren 27an Sunbilla-
Basakabi ibilaldia egiten du
Illurdi mendi taldeak.

BAZTAN

Ekainaren 20an Baztan
herri herri ibilaldia antolatu
dute Baztango
Mendigoizaleek.

LESAKA

Ekainaren 20an Lesakako
VII. Mendi Itzulia antolatu du
Beti Gazte elkarteak.
Xehetasunak 29. orrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Ekainaren 14tik 20ra

Bera (A. Lasaga), Doneztebe
(J. A. Mendia), Elizondo (E.
Arrupea), Urdazubi, Leitza
(O. Erbiti) eta Goizueta.

Ekainaren 21etik 27ra

Lesaka (M. Marin), Sunbilla,
Elizondo (F. Garcia Mata) eta
Leitza (A. Gimeno).

Ek. 28tik uztailaren 4ra

Bera (A. Fernandez), Etxalar,
Doneztebe (M. Etxarte),
Elizondo (R. Gezuraga) eta
Leitza (M. I. Larraia).

TELEBISTAKO TXOKOA



UDAKO SASOIAREN ATARIAN

Ttipi-ttapa telebista bestaz besta murgilduko da


San Juan suekin batera sartuko gara udan eta udako ezaugarrietako bat herrietako bestak dira, noski. Sanjuanak Saldias eta Arizkun, Sanpedroak Erratzu eta Donezteben... Lehenago ere bertze zenbait herrietan egin dira bestak, baina TTIPI-TTAPA TELEBISTAK Doneztebeko San Pedro bestekin ekinen dio udako Bestaz Besta saioari. Txupinazoa, betizuak, Trapatan dantza,... gure kamara eta kazetariak bertan izanen dira hurbil hurbiletik bestak ematen duena hartu eta pantailaren bitartez zuei banatzeko. Doneztebeko besten ondotik etorriko dira Lesakako Sanferminak, Iturengo bestak, El-

gorriaga Santioak, Berako Sanestebanak, Sunbillako Santiburzioak, Etxalar eta Arantzako Amabirjin bestak...

ERREPORTARIAK LANEAN

Uda partean berri guttiago sortzen direla gauza jakina da, baina herri herriko bestak bisitatzeaz gain, TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO erreportariak harat-honatean ibiliko dira, albiste bitxiak, pertsonaiak, kontu historikoak eta bertzelako gertakariak uda giroko erreportaietan biltzen. Bertze aldetik, Heraldikari buruzko saioa aurkeztuko dute Andoni Esparza adituak eta Enara Arrobarren kazetariak.

DISKAK



«Airea»

IBON KOTERÓN

ELKAR, 2004

Alboka, Euskal Herriko klarinete bikoitza, gure musika ondarearen katebegirik berezi zen kultunenetakoa dugu eta haren egokipena lortzeko esfortzuak bere transmisioaren onerako datoz. Leon Bilbao edo Txilibrin bezalakoengandik jaso genuen eta Ibon Koterón edo Kepa Junkera bezalako musikari eragileei esker bermaturik dago bere etorkizuna. «Leonen orroak» izeneko diskoan aurkeztu zituzten gustua eta metodologia izan dira oraingo «Airea» honen oinarria ere. Ikerlan zehatza, sorkuntza aberatsa eta ekoizpen mardul baten ondorioz, disko hunkigarri bezain aurrerakoia moldatu dute, non melodien kolore biziak zein erritmo indartsuen magiak eztanda egiten duten, gaur egungo world-music-aren esparruan aitzinean kokatzeko. «Airea» disko dialektikoa, ozono freskagarria da gure oroimenarentzat.

LIBURUAK



Spam Poemak

Castillo SUAREZ

ELKAR, 2004

Inork eskatu gabeko mezuei deitzen diegu spam, Interneteko publizitate zaborrari. Poema hauek ere inork eskatu gabe egin ditu Castillo Suarezek, eta inork eskatu gabe bidaltzen dizkigu; gure disko gogorra aztoratzeko, eguneroko lanen eta harremanen errutinak bere onetik ateratzeko. Sentimenduz ari da Castillo Suarez bere poema gehiengutan, baina modu ez sentimental, ia-ia antisentimental batean. Poesia narratiboa egin du

askotan, mikroipuinera hurbilduz tarteka, baina zalantza eta misterio-hari bat utziaz beti airean; sexua agertzen da sarritan bizikizun-kontakizun hauetan, baita herri honetan bizi garen guztioi dagokigun egonezin kolektibo baten printzak ere, baina ironiaz jantziarik hala ere, anbigutasun jostalari batez blaiturik. Apaingarri guztietatik ihesi ibili da egilea liburu honetan, hitz gutxi eta juxtuak erabiliz aldiro, definizio zehatzen bila.



Abona zaitez Giltxaurdira

Udal Kirol Instalazioa

Abónate a Giltxaurdi

Instalación Deportiva Municipal

Ekainaren 25ean irekiera
Apertura 25 de junio

- 25 x 12,5 metroko igerileku klimatizatua
- 12 x 7 metroko igerileku klimatizatua
- Jacuzzi
- Sauna eta bainu turcoa
- Muskulazio aretoa eta areto kardiobaskularra
- Erabilera anitzeko aretoa: aerobic, mantenimendu soinketa...
- 4.500 metroko solarium gunea (berdegunea)

- Piscina Climatizada 25 x 12,5 metros
- Piscina Climatizada 12 x 7 metros
- Jacuzzi
- Sauna y Baño Turco
- Sala de musculación y cardiovascular
- Sala multiusos: aerobic, yoga, gimnasia de mantenimiento
- 4.500 metros de solarium césped

Instalazioetarako sarbideak - kuotak

Formas de acceso a las instalaciones - cuotas

Urteak Años	Urteko Abonuaren Abono Anual (2)				
	Sarrera Entrada Inicial (1)	Hilabeteko kuota Cuota Mensual	Neguko Abonuaren Abono Invierno	Udako Abonua Abono Verano	Eguneroko Sarrera Entrada Diaria
0-3	0	0			
4-9	0	0			
(3) 4-9	15,50	4,65	46,30	25	2,50
10-13	0	5,40			
(3) 10-13	25,70	7,70	77,10	30	3
14-17	38,55	11,60	115,65	60	5
18-64	51,40	15,50	154,25		
> 65	20,55	6,15	61,70	30	3

- (1) Sarrera kuota behin bakarrik ordaintzen da, huzieran
La entrada inicial se paga solamente una vez
- (2) Familia ugariak %30eko deskontua izanzen dute finkabetako kuotari dagokionez
Las familias numerosas tienen un 30% de descuento sobre las cuotas propuestas
- (3) Garzonen abonua izanik
Padres abonados



Giltxaurdi

Udal Kirol Instalazioa
Instalación Deportiva Municipal
tel 948 452 301



Baztan Balleko Udala
Ayuntamiento del
Valle de Baztan



00-34 **948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak




☎ 948 637281 (denda orduetan)

LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, beheetiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua. - 1.500 m²ko lur eremua inguruan.



ETXEBIZITZAK 101 Saldu

BERA. Pisia salgai, Altzate karrikan. ☎ 679 476890 edo 948 630259.

LEITZA. Bi pisuko etxea salgai. 164 m². moldatu berria. ☎ 630320654-609 267046.

BERA. Pisia salgai Bidasoa karrikan, Correos gainean. ☎ 670 415720.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

BERA. Apartamentu mobleztatua errentan emanen nuke. Bidasoa 43, 3. B. ☎ 948 631033 (17:00etatik aitzinera).

ZUGARRAMURDI. Pisia errentan ematen dut. Bi lo-

gela, sukalde-jangela handia, despentsa, bainua. Bainua eta sukaldea mobleztatuak. Kanpoan terraza handia. ☎ 948599235 (19:00etatik goiti).

ETXEBIZITZAK 104 Errentan eman

Etxea edo pisua errentan hartuko nuke, Bera edo Lesakan, muga aldean. ☎ 687 639203 edo 943 631175.

Bortzirriak, Sara edo Senpere inguruan pisua errentan hartuko nuke, bakarririk hartzeko. ☎ 626 089153.

BERA-LESAKA. Pisia errentan hartuko nuke edo logelaren bat hartuko nuke etxe konpartituan. ☎ 696 043728.

GARAJEAK/LOKALAK 111 Bertzelakoak

LEITZA. Taberna traspasatzen da, sukaldea, terraza, MIN. Errenta txukuna. ☎ 686 585378.

LANA 301 Eskariak

Esperientzia duen neskek Sanferminetan kamarera gi-

sa lan eginen luke. ☎ 620 529498.

Elektronika eta mantentzen ikasi duen mutil batak lan eginen luke. ☎ 661 539702.

Sukaldaria esperientziarekin eskaintzen da, Bera edo inguruan lan egiteko. ☎ 616 878276.

Neska eskaintzen da adinekoak eta haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, interna edo externa moduan. ☎ 628 550485.

Neska eskaintzen da adinekoak eta haurrak zaintzeko, emakume adintua lantzeko, externa edo interna (hobe). ☎ 660050847.

Neska eskaintzen da adinekoak eta haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, interna edo externa moduan. ☎ 662 087873.

